

Goienkaria

ASTELEHENKO

2008ko martxoaren 17a > Astelehena > IV. urtea > 182. zenbakia > Euro 1

www.goiena.net

"Euskararen gaineko estrategia guztiek ibilbide bera jarraitu behar dute"

Joxerra Gartzia
Komunikazioan aditua > 9



G2a

Euskal Herriko hip hop doinuak Arrasaten > 23

DEBAGOIENA Ibarreko garraioak aztertzeko ikerketa abian > 05

KIROLA UDA eta Mondraren arteko derbian, banako berdinketa > 16

KULTURA Oñatiko Bertso Txapelketako finalistak, erabakita > 24


KIROLA > OÑATIKO DUATLOIA

Laurent Galinier eta Ainhoa Murua, garaile Oñatiko proban

OÑATI Duatloia XVII. ekitaldia izan zen aurtengoa eta inoiz baino partaide gehiago izan ziren: 340 lagun

DEBAGOIENA Ibarreko partaide ugari irteeran; Ander Agirre bergararra izan zen onena, 13. tokian

ESTU Galinierrek bi segundo atera zizkion Martinezzi; Muruak 36 segundoko alde Virginia Berasategiri > 15



Laurent Galinier, helmugan. S. MENDIOLA

Erramu Zapatuko feria, Aste Santuari ongi-etorria egiteko

Ohikoa denez, jende pila batu zuen Erramu Zapatuko feria Bergaran. Artisauak, hegaztiak, ganadua, jatekoak eta edatekoak ez ziren falta izan egun osoan zehar. Esan bezala, jende ugari ibili zen feriako gune ezberdinetan. Eguraldiak ere lagundu zuen jaia borobiltzen.

Urtetik urtera indartzen dabilen feria da Bergarakoa. Euskal Herriko toki askotatik etorritako artisauak eta nekazariak batu ziren eta herritarrek zein kanpotik etorritakoek jai giroaz gozatzeko aukera izan zuten. > 09



JENDETZA 200 bat postu egon ziren gune ezberdinetan banatuta. Jendetza handia ibili zen Bergaran, argazkian ikus daitekeenez.

JOSETXO ARANTZABAL

AURKIBIDEA

Debagoiena > 04-05
Elkarrizketa > 06
Iritzia > 07-08
Herriak > 09-14
Kirola > 15-22
Kultura > 23-27
Saillatuak > 28
Irrati-Telebista eta Hitzorduak > 29
Berri-zakua > 30-31
Azkena > 32

OÑATI > ARANTZURA

Bakearen aldeko ibilaldia

Gipuzkoako elizbarrutiko milaka sinestudun joan ziren ziren erromes Arantzazura. Iraun nigan. Ez izan beldurrik lelopean, Uriarte gotzainak eta erromesek zortzi kilometroko ibilaldia egin zuten Arantzazuraino. > 02-03

GIZARTEA > ELKARTASUNA

Saharako haurrak datoz udan

Oporrak Bakean programaren barruan, udan Saharako haurrak hartzeko deia egin dute. Eskerak apirilaren 10era egin daitezke udaletan. Bien bitartean, Aste Santuan, Saharara joango dira ibarreko hainbat lagun. > 04

AURIS
Toyota berria

Toyota Auris Sport berria.

177 ZP 2,2 Diesel
22.540 €tik aurrera.

TOYOTA
www.euskoauto.toyota.es

EuskoAuto
Olabarrena z/g BERGARA
943 76 23 85
BERGARA EUSKOAUTO ELORREGI

ERLIJIOA > DONOSTIAKO ELIZBARRUTIAK ANTOLATUTAKO IBILALDIA

Bakearen aldeko ibilaldia Arantzazura

JENDETZA Beste behin, Gipuzkoako elizbarrutiko milaka sinestun joan dira erromes Arantzazura; 7.000 inguru, antolatzaileen esanetan

LELOA *Iraun nigan. Ez izan beldurrik* izan da aurtengo erromesaldiaren goiburua, fedearen geroa eta bakearen gauzatzea oinarri hartuta

MEZUA Indarkeria alboratzeko eta zilegizko egitasmo guztientzat egokia izango den konponbidea aurkitzeko aldarria egin du Joan Mari Uriartek



LEHEN ERROMESAK Goizeko hamaika eta erdiak alderako iritsi ziren Arantzazuko gainera, *Iraun nigan. Ez izan beldurrik* zihoen pankarta aurrean zutela.

GOIATZ ARANA

GOIATZ ARANA > OÑATI

Zapato goizeko zortziak dira. Komun eramangarriak eta ehunka bozgorailu daude Oñatitik Arantzazurako bidean; jenderik apenas. 08:30ak. Jendea hasi da ailegatzen Soraluze Hotelaren parera. Gipuzkoako elizbarrutiko sinestunak dira, Arantzazura erromes joateko asmoa dutenak. Garaiz joan direla aprobeztatuz, tripa betetzen ari dira, aurretik dituzten zortzi kilometroak ondo egiteko indarrak hartzen. 09:00ak. Orain bai, hasi da mugimendua; jende dezente dator Oñatitik, maldan gora. Gizon eta emakume, denetarik dago; helduak dira gehienak, hori bai, baina gazteak ere badaude. Ia 09:30ak dira. Aurrealdean joango direnek pankarta ireki dute, eta gainerako milaka erromesak euren atzean jarri dira, pilan, errepidean behera ilara luzea osatuz. Donostiako Gotzainari arrera egiteko gertu daude.

Eta iritsi da Joan Mari Uriarte. Pankartaren atzean jarri da, aurreneko ilaran. Alboan du Miren Azkarate, Eusko Jaurlaritzako bozeramailea. Inguruan daude, besteak beste: Joxe Mari Arregi, Arantzazuko Probintziako burua; Luzia Alberro, Elizbarrutiko idazkari nagusia; Patxi Azpitarte eta Felix Azurmendi, bikario nagusiak; eta Angolako (Afrika) misiotik etorritakoak.

PAUSOZ PAUSO

Goizeko bederatzi eta erdiak dira, hasteko ordua. Jende uholdea hasi da mugitzen. Jainkoaren hitza, ebanjelioetako pasarte irakurketa, otoiitzeko erantzunak eta Anjel Mari Peñagarikaren bertsoak entzuten dira, ez besterik. Horiek baino ez dute isiltasuna apurtzeko lizentzia; jendea bere pentsamenduetan murgildu da, gogoeta egiten ari da, entzundakoen gainean hausnartzen. Eta isilik doa.

KONFIANTZA ETA MAITASUNA

Zortzi kilometro luze den ibilaldian barna zabaldutako mezua bitartez, erromesei esan die beldurrik eta konfiantza faltak ez dutela uzten uste onean bizitzen, eta elizak konfiantzadun jendea behar duela; hori dela aurrera egiteko modua. Gaineratu dute maitasunak kentzen duela beldurra; maitasuna dela oinarria eta iturburua, eta horren faltan daudenak ekarri dituzte gogora: bahituak, torturatuak, tratatu txarrak jasaten dituztenak, gose direnak, gaixoak, esperientzia ilunen bat bizi izan dutenak... Eta esan die ez daudela bakarrak, Jesus eurekin doala.

Pare bat ordu pasatxotan osatu dute ibilbidea. Denbora tarte horretan, eguzkia eta haize goxoa izan dituzte, baina zeruan lainoak daude orain. Zaparrada hasierako, Donostiako gotzainak hartu du hitza; azken mezua entzuteko momentua da.

AZKEN MEZUAREN PASARTE BATZUK



Joan Mari Uriarte
Donostiako gotzaina

"Beldurra sortzen duten gauza asko daude indarrean gure artean; oraingoan Mariaren magalpera ekarri gaituzten gai nagusi biek, fedearen geroak eta bakearen gauzatzeak, hainbat beldur eragiten dituzte gure artean".

"Izango ote du gure kristau elkar-teak behar duen bizitasuna eta gaitetasuna, bere fedea sakon, bizi eta ausarki aurkezteko, altxor baliotsua dela jakinik? Aurkituko ote dugu indarkeriak ukiturik dagoen herri batean zilegizko egitasmo guztientzako egokia den konponbide bat? Ikasiko ote dugu guztiok konponbide hau lortzeko guretik zerbaitetan amore ematen? Ulertu eta onartuko ote dugu guztion dugun ondarea bakoitzak daukaguna baino handiagoa eta zabalagoa dela? Iritsiko ote gara odola isurtzen duen indarkeria gordin eta gorrotagarria behin betirako alboratzea?"

"Arantzazuko Amaren aurrean, datorren urtean ere bilduko gara. Behar bada, gauza berberak eskatzen. Agian, lorturiko zerbait eskertzen. Eta berari diogun eraspenean eta maitasuna agertzeko".

"Kristau maiteok: iraun Jesusen fedean eta bakean!"



GOIATZ ARANA



GOIATZ ARANA

Gurutze Gorria > IBILALDI OSOAREN JARRAIPENA EGIN ZUEN

Gurutze Gorriak azpiegitura zabala muntatu zuen zapatuan. Erromesen zerbitzura jarri zituen: lau anbulantzia, mugitzeko zailtasunak dituztenei egokitutako ibilgailu bat eta denda bat. 35 lagunek jardun zuten lanean; ibilbidea osorik jarraitu eta Arantzazun bertan zaintza lanak egin zituzten ekitaldiak iraun zuen bitartean. Orotara, dozena bat lagun artatu zituzten, mareoak jasandako pertsonak ia denak. Larrialdi kasurik ez zen izan, baina, zorionez, eta, beraz, Gurutze Gorriko kideek lasai antzean igaro zuten goiza.

Garraio zerbitzua > ASKOK ERABILI ZUTEN AUTOBUSA JAISTEKO

Hainbeste jende mugitzen duten ekitaldietan gertatu ohi den moduan, sor zitezkeen zirkulazio arazoak beldur ziren zapatuan antolatzaileak. Halakoak saihesteko helburuarekin, lanean aritu zen 25 bat oñatiarrez osatutako talde bat, eta lortu zuten egoera kontrolpean izatea. Erabiltzaileek autobus zerbitzuaren aldeko apustua egin izanak ere lagundu zuen horretan: 87 autobus gertu zeuden erromesak Oñatira jaisteko, ekitaldia bukatu zenerako; eta beste bost gora eta behera ibili ziren, behar adina buelta egiten.



Arantzazu Akizu

ARRASATE

"Urteren baten-edo huts egin dut baina, gainontzean, beti etorri izan naiz. Oraindik badago premia bakearen alde zerbaitegiteko; asko, esango nuke nik. Edonola ere, ibilbidean zehar beste mezu batzuk ere zabaltzen dira, eta oso interesgarria izaten da. Ondo etortzen da barruak apur bat baretzeko. Izan ere, uste dut bizimodu honetan beste gauza baten bila ere aritu behar garela".



**Marise Mujika
Fermin Azaldegi**

TOLOSA

"Urtero etorri gara gu, batere hutsik egin gabe. Oso esperientzia polita izaten da. Pena apur bat ere izaten dugu, aldiro hurrengo urterako itxaropenez beteta egoten garen arren, guk nahi baino gutxiago aurreratzen dugulako, eta aurten ere tristura horrekin gatoz. Baina leloak dioten moduan, ez dugu beldurrik izan behar. Ibilaldi hau primeran etortzen zaigu guri, gauza asko pentsatzeko bidea ematen digulako. Oinez itzuliko gara, esperientzia komentatuz".



**Manuel Arteaga
Paki Cia**

GAINTZA

"Martxa hau egitea gustatu egiten zaigu eta, gainera, bakearen alde dena dator ondo. Urte askotan etorri gara, gazteak ginela hasita. Hamasei hamazazpi urte genituenean gauze egiten zen, hamar eta erdietan hasita, eta orduan ere etortzen ginen. Polit izaten zen. Garai hartan ikurrina ez zegoen legezkatuta, baina bide bazterrean jartzen zuten, suaren argiarekin ikusteko moduan. Taldean etorri arren, ibilaldia bakarrik egitea gustatzen zait, nire baitan".



**Joxe Irastortza
Juanita Garmendia**

ZALDIBIA

"Erromesaldi honetara etortzen garen bigarren aldia da; lehendabizikoa esperientzia polita izan zen, eta errepikatzea erabaki dugu. Bestela ere, badugu ibiltzeko ohitura eta honek aukera ona ematen digu horretarako eta gogoeta egiteko, isiltasunean. Bakea lortzea zaila badago ere, saiatuko gara gure ekarpena egiten. Soraluze Hotel ondoraino autotan etorri gara, eta beste bat utzi dugu goran, oinez bueltatzea gehiegi da-eta guretzat".



Agustin Irusta

ELGOIBAR

"Bakea gauza ederra da eta beharrezkoa ere bai. Momentu honetan, inoiz baino gehiago behar dugu, eta denon bultzadarekin ez bada, ez dugu lortuko. Behin baino gehiagotan etorri naiz erromesbide honetara eta lasaitu egiten nau; nire burua argiago eta garbiago bueltatzen da hemendik. Osasunak uzten didan bitartean, itzuliko naiz".



Erosten jakin:
ZURE FAMILIARENTZAT ONENA AUKERATU

 **EROSKI**
zurekin

EGONALDIA > 'OPORRAK BAKEAN'

Udan Saharako haurrak hartzeko gertu dauden familiendako deialdia egin dute

'Oporrak Bakean' programaren barruan, Frente Polisarioak deialdia egin du, udaletako gizarte zerbitzuen bidez; eskaerak, apirilaren 10a baino lehen egin behar dira

MIREIA BIKUÑA > BERGARA

Uztailen eta abuztuan saharar errefuxiatuen kanpamenduetako haurrak etxean hartu gura dituzte familiei deialdia egin die Frente Polisarioak. Interesa dutenek, apirilaren 10a baino lehen eman behar dute izena udaletako gizarte zerbitzuetan. Bestalde, Nubi, Bubisher eta Iesbaa elkarteek datozen asteetan egingo dituzte deialdiak. *Oporrak Bakean* programaren barruan haurrak ekarri gura dituzte udan.

MEDIKU AZTERKETA

Udako egonaldian mediku azterketa egiten zaie haur guztiei, eta



EGONALDIA Argazkian, Debagoienen egondako Saharako haurretako batzuk, Arrasateko udaletxean.

GOIENKARIA

etxera itzultzen direnean medikuak emandako txostena erosten dute. Era berean, errefuxiatu kanpamenduetako errealitatek ihes egiteko aukera izaten dute bi hilabetetan.

SAHARARA ASTE SANTUAN

Azken urteotan umeak hartu dituztenetako batzuk bidaia egingo dute Aste Santuan Saharara. Hain zuzen, Bergarako eta Antzuolako bederatzi lagun doaz,

bihartik martxoaren 25era arte. "Gu bederatzi lagun goaz, baina jakin badakigu, Aretxabaletako eta Bergarako beste lagun batzuk ere joango direla", esan zigun Bibi Anduezak.

Terrorismoaren aurkako legeei buruzko mintegia Arantzazun

Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzako zuzendaritzak antolatutako mintegiaren helburua zera izan da: terrorismoaren aurkako legeek ekar ditzaketen eskubide urraketen inguruan hausnarketa egitea.

Horretarako, 25 aditu elkartu ziren Arantzazuko Gandiaga Topagunean. Besteak beste, Europako Kontseiluko Torturaren Prebentziorako Batzordeko Espainiako ordezkari Emilio Gines Santidrian, gatazka-bitartekaritzan aditu eta abokatu Brian Currin eta Ipar Irlandako Ararteko ohi eta abokatu Nuala O'Loan.



GOIENKARIA

AISIALDIA

Aukera zabala Foru Aldundiko udalekuetan

19 toki ezberdinetan 5.205 neska-mutikoendako tokia egongo da

M.B. > BERGARA

Gipuzkoako, Bizkaiko eta Arabako foru aldundiek eskaintza zabala dute uztaileko eta abuztuko udalekuetarako. Hain zuzen, 5.205 haurrendako tokia egongo da: horietatik 1.955 gipuzkoarrak izango dira.


Aldundiaren arabera udalekuen helburua da, "umeei jolaserako eta bizikidetasunerako leku bat" eskaintzea, "autonomia pertsonala" finkatzeko".

Uztailaren 1etik abuztuaren 14ra arte luzatuko diren udalekuetan 7 eta 13 urte arteko neska-mutikoek hartuko dute parte. Izena Gipuzkoako gazte informazio bulegoetan eman daiteke, besteak beste, Aretxabaletan, Bergaran, Eskoriatzan eta Oñatin. Gainera, Internet bidez ere egin daiteke eskaera, www.gipuzkoa.net/oporraldi helbidean. Epea martxoaren 31tik apirilaren 9ra izango da zabalik.

UMEAK HIRUNAKA


Eskaera orri bakoitzean gehienez hiru haurren izenak jar daitezke. Hortaz, haur bakoitzeko eskaera bakarra onartuko da. Gainera, udalekuak egongo diren 19 tokien artean aukeraketa egin behar da. Haur gehienei udalekuetan parte hartzeko aukera emateko, zozketa egiterako orduan, lehenetsuna emango zaie aurreko urteetan udalekuetan egon ez direnei.

Zozketa apirilaren 10ean egingo dute, eta erreklamazioak aurkezteko aukera egongo da apirilaren 17an eta 18an. Ondoren, plaza lortu dutenek, behin betiko izenematea egingo dute.



- Merkatuko lehen markak
- Gremioen koordinazioa
- Mota askotako estiloak
- Etxebizitzaren erreabilitazioa

PROIEKTUA - DEKORAZIOA
Ipar
PROIEKTUA - DEKORAZIOA
Ipar
project.s.a.
SUKALDEAK-BAINUAK-ZERAMIKA-ALTZARIAK
Lapegaraita Industrialea BERGARA
Tel.: 943 76 98 30 Faxa: 943 76 52 44
www.iparproject.com



ARRASATE > GARAIA BERRIKUNTZA GUNEA

Microsoft Garaian izango da udarako

Hasiera baten 15 bat lagunek jardungo dute Microsofteko Arrasateko zentroan, udatik aurrera

EDU MENDIBIL > ARRASATE

Garaia Berrikuntza Guneko iturrien arabera, udarako martxan izango da Urribarrin Microsoft enpresako zentro espezializatua. Hasiera baten, 2008ko lehen hiruhilekoan abian jartzekoa zen, baina azkenean udarako martxan egotea da asmoa. Hain zuzen ere, duela aste batzuk Microsofteko Walter Poloni, Carlos de la Iglesia eta Santiago Lorente ordezkariak etorri ziren Arrasatera, Garaia arduradunekin biltzera eta Berrikuntza Gunea bertatik bertara ezagutzera. Besteak beste, Ikerlan, MU eta MCCren esperientzien berri jaso zuten Arrasateko egonaldian. Garaian bertan egin zuten bileran, Microsoften zentro espezializatuaren kokaleku posiblea ere ezagutzeko. Andoni Gartzia Garaia gerentek adierazi bezala, "Microsoft Arrasatera

etortzea oso pozgarria da bai Garaiaarentzat eta bai Debagoienarentzat. Udarako Microsoft Arrasaten lanean egotea da asmoa. Uztaila eta iraila bitartean izango da hori. Ezin da datarik aurreratu oraingoz". Hasieran, 15 bat lagunek jardungo dute lanean Arrasateko zentroan.

INFORMATIKAN ERREFERENTEA

Urtebete pasa da Garaia arduradunak, MCC, Jaurlaritza, Diputazioa eta Euskadiko Telekomunikazio Klusterra Microsoftekin negoziatuz hasi zirela. 1975ean sortua, informatika enpresa garrantzitsuenetako bat izatera iritsi da Microsoft. Izan ere, mundu zabalean erabiltzen diren software aplikazioen %50 beraiek egiten dute.

Gaur egun, Espainiako estatu bost berrikuntza gune ditu Microsoftek.



GARAIA Argazkian, Arrasateko Garaia Berrikuntza Gunea, Urribarrin.

GOIENKARIA



MICROSOFT Walter Poloni eta Microsofteko beste ordezkari batzuk Garaian.

J.M.

GARRAIOAK

Merkantzia eta bidaiariak aztergai

MUK dihardu azterketa egiten; inkestak bidaliko zaizkie enpresei

E.M./A.B. > BERGARA

Debagoieneko merkantzia eta bidaiarien garraioari buruzko ikerketa tekniko egiten dihardu Mondragon Unibertsitateak. Hain zuzen ere, Arrasateko Goi Eskola Politeknikoko eta Enpresa Zientzien Fakultateko hamar bat irakaslek dihardute lanean azken asteotan.

Jaurlaritzako Garraio Sailak, Gipuzkoako Diputazioak eta Debagoieneko Mankomunitateak bultzatu dute ikerketa. Aipatutako hiru erakundeek finantzatu dute proiektua. Aurrekontua 120.000 eurokoa da. Euskadiko Garraio eta Logistika Klusterrak egingo ditu koordinazio lanak.

GARRAIOAREN DIAGNOSTIKOA

Debagoieneko garraioaren egoeraren diagnostikoa egitea da helburua. Hau da, garraio beharrak zeintzuk diren identifikatu eta azpiegituren egoera zein den jaso. Hortik abiatuta, eta epe laburrean azpiegitura mailan izango diren aldaketak kontuan izanda, erabaki egokiak hartu ahal izateko tresna baliagarria eskuan izatea da asmoa.

INKESTAK ENPRESEI, GAURTIK

Gaur, astelehena, Debagoieneko enpresa ezberdinei inkesta bidaliko zaie posta elektronikoko bidez. Guztira, produktuak edo merkantziak garraiatzen dituzten 120 bat enpresarengana joko dute MUko irakasleek datozen egunotan. Hori dela eta, Debagoieneko enpresen laguntza eta inplikazioa ezinbestekoa direla azpimarratu dute MUko ordezkariak.




JOKIN BEREZIARTUA

Mutuen aurrean langileek babesik ez dutela salatu du ELAK

Mutuaren aurrean langileek babesik ez zioen pankarta erakutsiz, mutuen "portaera txarra" salatu zuen ELAK egubakoitzean, Bergarako San Martin plazan. Osasun jardueretan, kudeaketa ekonomikoan eta prebentzioan lehentasuna enpresetako mozkinetara "argi eta garbi" utzi nahi izan zuten ELAkoek. Mutuek salatzeko moduko lanak egiten dituztela esan zuten, hala nola erreperatu aurretik langilea lanera bidaltzea edo bajak neurritz kanpo kontrolatzea.



1979urtetik zure zerbitzura



EGUZKIGRAF

inprimategia

Aretxabaletako Industrialdea F-0-4

20550 Aretxabaleta

Tfnoa: 943 791 844 - Faxe: 943 792 941

E-mail: info@eguzkigraf.com

Joxerra Gartzia Bergaran izan zen eguenean, 'Zer arraio, kristo, demontre egin behar dugu euskararekin?' izenburuko hitzaldia eskaintzen. Aurpegi ezaguna da Gartziaarena. EHUKo Ikus-entzunezko Komunikazioa eta Publizitate Saileko kide; Euskararen Kalitatearen Txostenaren egilea; telebistanan aritua eta bertsogintzan aditua da, besteak beste.

Joxerra Gartzia > Irakaslea eta Komunikazioan aditua

"Euskararen gaineko estrategia guztiek ibilbide bera jarraitu behar dute"

MIRIAN BITERI > BERGARA

Joxerra Gartzia komunikazioan adituak, tokian tokiko komunikabideek euskararen gainean egindako papera txalotu du. Bada, bidea oraindik luzea dela eta egoerari buelta emateko, estrategia guztiak "ibilbide bera" jarraitu behar dutela dio.

Hitzaldiaren titulua kontuan hartuko dut hasteko. Zer arraio egin behar dugu euskararekin?

Hori da kazetariak derrigorrez egin behar duen galdera baina, galdera horrek ez dauka erantzun erraza. Zailaz aparte luzea da. Gauza horietan nekez dago erantzun laburra onartzen duen benetako arazorik. Laburtuz, euskara erabili behar dugu zerbitzarako balio digun neurrian baina alde aurretik guk ez badigu ezer ematen, ez digu ezertarako balio.


Nolatan Zer arraio, kristo, demontre egin behar dugu euskararekin? izenburua?

Euskararen egunean, Donostian eskatu zidaten zerbait egiteko. Ikasle izandako batekin egitea erabaki nuen, Iñigo Fernandezekin. Berarekin koordinatu behar nintzen. Aspertuta nengoen beti gauza bera esateaz eta zerbait egitekotan formatu berezian egitea pentsatu nuen. Izen hori jartzeko eta horren barruan edozer gauza esan daitekeela esan nion. Inprobisatutako izenburua da. Zoritzarrez, itxura denez, deigarria da. Geroztik, eskaera handia sortu da eta iritsi ezinda gabilta.

Komunikabideetan ondo erabiltzen al da egun euskara?

Komunitate batek dauzkan komunikazio eta hizkuntza arazoak konpontzeko hiru tresna dauzka: etxea eta kalea; komunikabideak eta hezkuntza sistema. Lehenengoak, ezin dira aintzat hartu, Euskal Herri ikuspegitik gehienetan huts egiten dutelako. Oso inportantea da beste bi tresnak ondo erabiltzea. Euskarazko komunikabideak egotea bakarrik aurrera pausu handia da.

Baliabide gehien dituzten komunikabideok, nik homologazio konplexuak deitzen dudana gauza batekin sortu dira. Obsesionatuta daude gauzak munduan eta Espainian egiten diren bezala egitearekin. Harrigarria da zer berandu arte itxaron behar izan genuela ETBn bertsolaritza kontuan izan arte. Eskola bezala, hedabideak euskararen zuzen-



Joxerra Gartzia eguenean izan zen Bergaran, euskararen gaineko hitzaldia eskaintzen.

MIRIAN BITERI

KOMUNIKABIDE HANDIAK

"Baliabide gehien dituzten hedabideek obsesionatuta daude gauzak Espainian egiten diren bezala egitearekin"

tasun hutsari begira daude. Eraginkortasunari ez diote begiratzten. Bada, Debagoiengan irakasle egon nintzenean ikusi nuen oso hiztun egokiak zirela. Esatera moldeetan gu eta ETBn bertan erabiltzen duguna baino eraginkorragoa eta egokiagoa zuten, eta jende hori traumatizatuta

ZUZENTASUNA

"Eskola bezala, hedabideak euskararen zuzentasun hutsari begira daude, eraginkortasunari baino"

zegoen. Hori akats bat da. Nik uste dut tokian tokiko komunikabideek paper ona egin dutela.

Zer diozu publizitateari buruz? Momentu honetan, predikatzen dugun ikuspegiaren paradigma da publizitatea. Gaur egun publizitatea egin duten agentzietako

AZKEN LIBURUA

"Hainbeste premia dago jendaurrean hizketan ondo ikasteko liburua idazteko beharra izan nuela"

langile gehienak erdaldunak dira. Erakundeek eta enpresek, oro har, behartu beharko lituzkete publizitate agentziak langile euskaldunak izatera. Gaur egun, prozesu osoa erdaraz egiten dute eta azken momentura arte itxoiten dute, *slogana* itzultzeko.

Euskararen egoera hobera egin dezan, eragileen arteko koordinazioa ezinbestekotzat ikusten duzu...

Hala da. Euskara produktu bat da, beste edozein bezala. Euskararen inguruko estrategia guztiak bateratuta izan behar dira. Mezu diferentek izango ditu, hartzaileen arabera, baina denek ibilbide bera jarraitu behar dute. Gaur egun, badirudi agintari kultural ofiziala, kontra ofiziala eta instituzio bakoitzak bere kabuz egiten duena dagoela. Hori akats bat da.

Unibertsitatean ere berdina gertatzen dela uste duzu?

Bai. Euskal adarraz jardungo dut, esaterako. Badirudi aldarrikapen bakarra dela ahal den ikasgai gehienak euskaraz ematea. Askotan galdetzen diet ikasleei ea euskarazko ikasgaiak benetan hizkuntz horretan ematen diren eta horrelako euskararekin horrela jasotzea merezi duen. Tabu asko daude. Eztabaida sakona egin behar da horren gainean.

Euskararen Kalitatearen Txostenaren egileetako bat zara, Kike Amonarriz eta Andoni Egañarekin batera. Nolatan sartu zinen horretan?

Euskararen Aholku Batzordean lau urtez egon ostean eta ez nuen ezer egiterik lortu, erretiratu nintzen. Amonarriz eta Egaña sartu ziren orduan eta txostena egiteko ardura hartu zuten. Egaña proposatu zidan eta baietza eman nion.

Pozik zaude txosten horren emaitzarekin?

Txostenarekin gustura geratu nintzen. Baina, ospea hartu zuen, hitzaldiak ematen ibili ginen eta nik eskatuta, handik irtendako ondorioak aurkeztu genien eragileei. Jendeak dio oso ondo dagoela baina, badirudi ez dagoela gogorik ondorioak ateratzeko. Kurioso da, izan ere, azken finean, Gobernuak agindutako txostena da. Onarpen teorikoa badago baina hori aplikatuz gero, gauza asko aldatu beharko lituzkete eragile horiek.

Liburua aurkeztu zenuen joan zen astean. Zertan datza?

Ahozko jendaurreko hizketa lantzeko eskuliburua da, ariketak dituena. Hainbeste premia dago jendaurrean hizketan ondo ikasteko idazteko beharra izan nuela. Abiapuntua izan daiteke.

oharrak eta deialdiak

ARRASATE

> Urpekaritza ikastaroa antolatu du Udalak

Getariako KSUB urpekaritza zentroak emango duen ikastaroa apirilaren 4an hasiko da. Dagoeneko izenemate epea zabalik dago; hain zuzen, bazkideek 350 euro ordaindu behar dute, eta ez bazkideek, 370 euro. Ikastaroan parte hartzen dutenek nazioarteko urpekari agiria eskuratuko dute, munduko edozein lekutan urpekaritza egiteko aukera ematen duena. Informazioarako: 943 14 01 85 edo 627 93 03 30.

BERGARA

> Udalekuetako begiraleendako izenematea

Xipizaro elkarteak zabaldu du uztaileko udaleku irekietan begirale izateko izenemate epea, martxoaren 28ra arte. Agorrosingo ludotekan hartuko dituzte izenak, 17:00etatik 19:30era.

ARRASATE

> 'High School Musical' ikustera joateko

Bilbon, Arriaga antzokian, egingo dute *High School Musical* ikuskizuna apirilaren 4an, eta hura ikustera joateko autobusa antolatu du Iturripe elkarteak. 17:00ak aldera abiatuko dira, eta bueltarako autobusa 22:45 inguruan hartuko dute. Horrez gain, Gaztela eta Leongo Orkestra Sinfonikoak joko du egun

berean Euskalduna jauregian, eta hara joateko aukera ere egongo da. Batera zein bestera joateko, 620 55 99 79 telefonon eman behar da izena, lehenbailehen.

ARRASATE

> Ludoteka ibiltaria Gargartzan egongo da

Txatxilipurdiren ludoteka ibiltaria Gargartza auzoko Patxixen egongo da datorren zapatuan, 11:00etatik 13:30era bitartean. Gargartza eta Gesalibarko 3-12 urte arteko umeendako da.

DEBAGOIENA

> Aste bukaeretakoa irteerak gazteendako

Manuel Larramendi Kultur Bazkunak *Euskal Herrian barrena* delako programa berri-tu eta martxan jarri du berriz. 18-30 urte bitarteko gazteek irteerak egiteko aukera izango dute. Informazio gehiagorako: 943 69 64 50.

BERGARA

> Hainbat ikastaro antolatu ditu Udalak

Sendabelarren, areto dantzen eta sukaldaritza begetariano eta nutrizioaren gaineko ikastaroak antolatu ditu Udal Kultura Zerbitzuak. Izenematea zabalik dago kultura etxean. Argibideak, honako telefonon: 943 77 91 59.

BERGARA

> 1979an jaiotakoek ospakizuna izango dute

1979an jaiotako bergarrek kinto ospakizuna izango dute apirilaren 19an Tartufon. Izenematea zabalik dago; 35 euro sartu behar dira Euskadiko Kutxako 3035 0009 11 0090081875 kontuan.

ARRASATE

> Taila ikastaroa, apiriletik aurrera

Arrasateko Tailaginen Elkarteak oinarriko taila ikastaroa antolatu du apiriletik aurre-

ra. Izena emateko eta argibideak eskatzeko, deitu honako telefono zenbakietara: 645 70 59 13 (Felix) edo 943 79 77 57 (Jose Mari).

BERGARA

> San Joxepe elkartearen urteko batzarra

Martxoaren 27an egingo du San Joxepe erretiratuen elkarteak urteko batzarra. Besteak beste, iazko akta onartu eta batzorderako hiru kide berri aukeratu dituzte. Lehenengo deialdia 16:00etan da eta bigarrena, 17:00etan.

OÑATI

> Arantzazuko arrantzabarrutiko paseak

Arantzazuko arrantzabarrutian ibiltzeko paseen lehenengo zozketa martxoaren 18an izango da, 20:30ean, Pago-Uson.

ARRASATE

> Pilates hasiera mailako ikastaroak

Apirilaren 1, 3, 8, 10 eta 15ean izango dira eskolak, 19:30etik 20:30era. Izena emateko, deitu 943 77 16 77 telefono zenbakira.

OÑATI

> Deustuko Unibertsitateko eskaintza

Deustuko Unibertsitateko ordezkari batzuek euren eskaintza akademikoa azalduko diete Batxilergoko 1. eta 2. mailako ikasleei eta gurasoei gaur, astelehena, ikastolan, 18:30ean

etxeko leihotik



Edu Mendibil

ASTELEHENEKO GOIENKARIAKO erredaktore burua

Erbestean direnen pozak eta herrimina

Pasa den martxoaren 3an omenaldia eskaini zioten Bixente Iburguren bergararrari La Platako Euskal Etxean. Urtetan bertako presidentea izan zen Iburguren, eta Argentinan hil zen, 81 urterekin, jaiotzetik, Zaldumendi baserriatik urrun. Hil-kutxa La Platako Euskal Etxe ondotik igarotzean, *Agur jaunak* abestu zioten Bixenteri haren lagunek. Bergaran, Bixenteren aldeko meza izan zen aurreko zapatuan eta, ondoren, senitartekoek afaria egin zuten. Afalostean, ez ziren falta izan Bixentek hain gustuko zituen trikiti doinuak. Badago agur alaia baino hobirik?

Hura bai abentura, gerra ostean Venezuelara, Mexikora, AEBra edo Argentinara joandako euskaldunena. Iburguren kasuan, hitz onak besterik ez zituen etxeko egin zuen Argentinarentzat. Etorikin Kutuna izendatu zuten 2004an.

Aspaldian, kontrako bidaia egiten ari dira hangoak Europara. Leku askotako jendea dabil etortzen gurera; gogoan dauzkat Argentinako Diego, Kolonbiako Mila, Salif afrikarra edo Sirjham pakistandarra. Gauza ederra litzateke etorkizunean Euskal Herriari buruz hitz politik izatea, etorkinak gure enbaxadore egitea. Badago integrazio hobirik?

"Hura bai abentura, gerra ostean Amerikara joandako euskaldunena"

> Erramu Zapatua
Ohikoa denez, Aste Santuaren atarian, Erramu Zapatua ospatu zen Bergaran. Urtetik urtera indartzen ari den jaia da. Aurten ere, herritarrek bat egin zuten jaiarekin, egun osoan.

> Oñatiko duatloia
Duatloia 17. ekitaldia jokatu zen zapatuan Oñatin. Azkenean, eguraldiak ez zuen zapuztu antolatzaileek eta kirolariek egindako lan aparta. Zorionak guztiei.

debagoiendarrak kanpoan

Iraia Arabaolaza > Aretxabaleta

"Italian, Irlandan, Ingalaterran eta orain Eskozian... ez naiz geldi geratzen!"

LEIRE KORTABARRIA > ARETXABALETA
Aretxabaletan jaio zen orain dela 30 urte Iraia Arabaolaza, baina etxetik urruti bizi da gaur egun: Glasgow hirian, Eskozian, hain zuzen ere. Arkeologia ikasi zuen, eta arlo horretan dabil gustura lanean Eskozia aldean.

Noiz eta nolatan joan zinen Eskozia?

Nik ikasitakoarekin zerikusia zeukan lan interesgarri bat topatu nuen, eta Aberdeen-era joan nintzen 2006ko urtarril bukaeran.

Laster ohitu zinen hango bizi-modura?

Bai. Kanpoan bizi izaten urte pare bat banoa, eta hiriz aldatzea ere ohituta nago. Baina, batzuetan, lagun berriak egitea

eta zaharrak agurtzea ez da erraza izaten.

Lehen ere, kanpoan bizi izandakoa zara, ezta?

Bai, unibertsitate Italian egon nintzen; Irlandan arkeologian lanean eta ingelesa ikasten; Bradford-en, Ingalaterran, ere bai; eta orain Eskozian nabil. Ez naiz geldi geratzen!

Eskozian ere arkeologia lanak egiten dituzu orain?

Bai, eta zelako hotza! Aberdeen-en, eliza baten barruan egon nintzen, eta elizaren estruktura zaharrak eta ia-ia mila eskeleto aurkitu genituen. Orain, Glasgow-n, eskeleto horiek analizatzen ari naiz, baina laster kanpoan ibiliko naiz indusketa lanetan.



GOIENKARIA

Arkeologia Eskozian

Arkeologia ikasketak egin zituen Iraia Arabaolaza aretxabaletarrak, eta Eskozian dihardu lanean.

Aretxabaletara etortzen zara?

Gabonetan beti, eta joan zen urtean, Aste Santuan, udan... Aurten, uda inguruan ikusiko da; uste dut eskapadaren bat egingo dudala, familia eta lagunak ikusteko, behinik behin.

Zelakoa da bizimodua Eskozian, Euskal Herriarekin alderatuta?

Eguraldi txarrragoa egiten duenez -hemen euria egiten ez duen eguna arraroa da-, jendeak etxean edo tabernetan denbora gehiago pasatzen du. Kanean egoteko ohitura txikia dago, nire uestez.

Etxetik, zer falta igartzen duzu?

Familia eta lagunak faltan igartzen ditut, noski, baina jana-

ria eta eguzki pixka bat ere gustura ekarriko nituzke maletan.

Eskoziarrak zelakoak dira?

Jatorrak dira; umore sarkastiko eta jarrera ezkor samarra dute, baina. Tabernetan, barra inguruan topatuko dituzu, ez dantzan! Eskoziarrak izateaz oso harro daude; gure legez, horretan, behintzat!

Eskozian geratuko zinateke bizi izaten gustura, ala beste nonbaitera joateko asmoa duzu?

Egia esan, ideiarik ez! Orain arte, lanak edo ikasketek errotan ninduten tokietara joan naiz, eta zer edo zer beste tokiren baten topatuz gero, zeinek daki! Nahiz eta Euskal Herrira bueltatzeko asmoa ere hor dagoen.

kale inkesta

Aste Santua inoiz baino lehenago iritsi da aurten. Badaukazu kanpora joateko asmoa?

Julian Gezalaga
Langilea
Antzuola

Ez ez, aurten ez daukagu inora joateko asmorik. Herrian geratuko gara lasai-lasai. Eguraldi onak laguntzen badu, bueltaren bat emango dugu; baina bestela hemen geratuko gara, atsedean hartzen.

Izaskun Muniategi
Langilea
Bergara

Eguraldiaren arabera antolatuko ditugu Aste Santuko oporrak. Eguraldiak laguntzen badu, Laredora joango gara, atsedean hartzera. Badaukagu ohitura nonbaitera joateko egun batzutarako.

Joseba Goikoetxea
Langilea
Amezketta

Bai, aurten New York-era joango gara. Bage-neukan ezagutzeko gogo eta orain, gainera, dolarra, euroarekin alderatuz baxuago dagoenez, aprobetxatuko dugu. Deskonektatzeko ongi etorriko zaigu.

Maite Zabaleta
Langilea
Oñati

Aurten lan egitea tokatu zait. Dena den, lau egun ditut jai eta deskantsatzeko aprobetxatuko ditut. Bestela, badaukagu mendira edo eskiatzera joateko ohitura. Turismoa egitea ere gustuko dugu. Abuztuan joango gara.

irakurlearen txokoa

943 25 05 05

goienkaria@goiena.com

BERGARA

> Bideberriko komun publikoak, zikinak

Aurreko astean ibarreko komun publikoen ganean argitaratutako artikulu baten harira, bergarar batek idatzi digu. Bergaran, Usondo parkeen eta autobus geltokian, komunak daude. Irakurle honek zera esan digu: "Bideberriko komunak oso zikin egoten dira eta ordu jakin batzutan erabili daitezke bakarrik. Bergararentzat eskaintza nahikoa da? Ez dut uste".

OÑATI

> Kultur etxe ondoko espaloian arriskua

Oñatiko kultur etxe ondoko lorategiko sarreran obretan dabilta azken egunotan. Inguruan bizi den oñatiar batek deitu digu, pasabide horren arriskuaz ohartarazteko. Haren hitzetan, "lorategi ondoko paretan bota egin dute eta espaloia txukuntzeko lanetan dihardute langileek. Bien bitartean, oinezkoak errepidera atera behar dira aurrera egiteko, eta autoendako ere pasabidea estuegia da. Udalak beharrezko neurriak hartu beharko lituzke istripurik ez gertatzeko, arriskua handia da eta".

DEBAGOIENA

> Kiroldegien ordutegi murrizketa

Debagoieneko kirol-txartela duen erabiltzaile baten keza: "Aste Santuan hainbat egunetan itxi egiten dituzte kirol gunek? Lanerako gertu dagoen jendea badago, eta zabaldu egin beharko lituzkete hemen geratzen garenontzat".

ustek uste

Larraitz Zeberio

Ointxe harrobia prestatzen

Aspaldiko partez (bi urte edo) Ointxe Arrasate taldeko mutilen partidua ikustera joan naiz aste bukaeran. Izena aldatu dute baita entrenatzailea ere, baina aurpegi ezagun asko ikusi daitezke oraindik ere Iturripen. Alartzia, Gamarra, Mallabiabarrera, Kintana, Biain... Ez ditut izenez ezagutzen, baina zaleen artean ere badaude taldearen nondik norakoak aspalditik jarraitzen dituztenak.

Taldea, baina, berritu egin da. Antxon, Atxa... jokalarik gazteagoak dira eta fin datoz gainera. Taldeko lana da hori ere. Duela pare bat urte, Ointxen ohitura zuten norgehiagoka bideratutakoan gazteei minutuak ematea.

Aste bukaeran ikusi dut berdin jarraitzen dutela. Eta gustatu egin zait.

zorroztailea



Markos Balentziaga

Matematikaren egunean

"20 urteko lanarekin, pi zenbakiaren 707 hamartar kalkulatu zituen Shanksek, eta 1873an argitaratu. Eta misterio bati bide eman zion: hamartar horiek guztiak aztertuta, zazpi zenbakiaren eskasia susmagarri bat zegoela ohartu zen De Morgan matematikari ezaguna"

Irene Lasa
Berria > 2008-03-14

Matematikaren eguna egiten dabe martxuaren 14an mundu anglosaxoian. Gorabehera horixe berbabide bihurtu eta, *Zenbakiaren lilura 'pian'* izena emonda, era bateko eta besteko kontuak aittatzen zittuan Irene Lasak egubakoitzeko *Berria*-n.

Halako egunetan matematikaren aplikaziñuak eta jokuak aittatzeko ohituria oso zabala da, jakiña danez.

Esaterako, Frank Drake izeneko irrati-astronoma 1961. urtian formulau eban ekuaziñua ez da oso ezaguna: Draken ekuaziñuak hor, gure Lur planetaren ostian, zenbat zibilizaziño dagon jakitako balio dau; honetara enuntziatzen da: $N = RFpN_eF_iF_cL$. Eta kalkuluak 10.000 zibilizaziñoko kontua emon zotsan Drake berari.

Eta gu hor gañetan aingeruak baño ez zebiztelakuan.

Baña Lur planetiaren atarittik

kanpora jun barik, etxe barruko kontu miñ eta pottoloetarako be balio dau ebazmen eder horrek. Hara: Angelina Jolie-k, Paulina Rubiok, George Clooney-k, edo holako beste birigarronen batek ollomika-ollomika eginda daukazula zure bihotz kokkorra? Ba, hauxe dozu bihotzondo minbera hori egoera horretan erradiografiatzen dotsun ekuaziñua: $1,7 \times A + 1,5 \times B + 1,5 \times C + 1,5 \times D + 1,3 \times E = \dots$

Ez da zoragarrixa?

Irene Lasak gaineratzen dau bere

lanian p zenbakixak jolaserako be aukera ugari emoten dabela; esaterako, martixaren 14 batian (1879an) jaio zala Albert Einstein dakargu gogora; edota Google Interneteko billatzalliaren bi jabien enpresia burtsara eruan zebenian 14,159265 millo akziño atera zittuztela merkatura.

Honaño etorteko indarra izan dozun irakurle maitagarri horrek, baño, jakin nahi dozu zihetz-zihetz, botijuak zela gordetzen daben ura freskuran? Ba, 1994tik hona ederki ezagutzen dan kontua dozu hori be. Klikaizu Interneteko *El mecanismo del botijo. Historia y otros datos*. Terra org-en eta hantxe gozatuko dozu bizpahiru irakaslek egin zeben aurkikuntza bikañaz.

"Aplikaziñuak eta jokuak aittatzeko ohituria oso zabala da, jakiña danez"

"Jakín nahi dozu zihetz-zihetz, botijuak zela gordetzen daben ura freskuran?"

Goienkaria

Argiraraztailea Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkarteak • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 ARRASATE
Lehendakaria Estepan Plazaola Zuzendari nagusia Inazio Arregi

Zuzendaria Eneko Azkarate Erredaktore burua Edu Mendibil Erredaktoria Goliatz Arana, Larraitz Zeberio, Maider Arregi Oinarritzko diseñua Goli Arana Diseñu arduraduna Alex Azkarate Maketazioa Kepa Martelo Publizitate arduraduna Mireia Larrañaga Harpidetza eta banaketa Marta Leturia Administrazio arduraduna Agurtzane Gaintzarain

EGOITZA NAGUSIA
BERGARA 20570 Barrenkalea 33 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12
Posta-e: goienkaria@goiena.com

ORDEZKARITZAK
ARRASATE 20500 Otarola Lizentziaduna 31 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12
Posta-e: arrasate@goiena.com

ARETXABALETA 20550 Durana 11 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxabaleta@goiena.com

Publizitatea Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 09
Posta-e: publi@goiena.com

Harpidetza Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 08 10 50 • Posta-e: harpidetza@goiena.com

Lege Gordailua: SS-0088/04 • ISSN: 1697 3542 • Tirada: 5.000 ale



Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria

Gipuzkoako
Foru AldundiaEUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCOKULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako SailburuordetzaEusko Jaurlaritzako Kultura Sailak
diruz lagundutako aldizkaria

Herriak

Arrasate > 10 Bergara > 11 Oñati > 12 Aretxabaleta > 13 Eskoriatza > 13 Antzuola > 14 Aramaio > 14 Elgeta > 14 Leintz Gatzaga > 14



> **ARRASATE**
Aste Santurako eskaintzak Gazte Informazio Bulegoan > 10



> **BERGARA**
Euskara bultzatzeko hitzarmena sinatuko dute apirilaren 12an > 11



> **OÑATI**
Bi lanpostu betetzeko deialdia egin du Oñatiko Udalak > 12



> **GATZAGA**
Udaletxe aurrean kalea zulatzen hasi dira hodiak sartzeko > 14

BERGARA > ERRAMU ZAPATUKO FERIA

Erramu Zapatuko feria: urtetik urtera indartuz doan hitzordua

AUKERA ZABALA

Artisauak, hegaztiak, ganadua, eta pintxoak eta edariak izan ziren gune ezberdinetan

JENDETZA

Jende ugari ibili zen Bergaran, eguerdian bereziki; txikiak hegaztiak gozatu zuten

EDU MENDIBIL > BERGARA

Goizeko lehen ordurako, gertu ziren artisauen postuak San Martin plazan: otarrak, egurrezko tailak, xaboiak, gozokiak, txo- txongiloak, bitxiak, larruzko jantziak..., aukera zabala zen. Jose Ramon Madinabeitiaren postuak ere bisitari ugari zituen; eskuz jokatzeko pilotak egiten ditu Madinabeitiak eta gaztetxoak eta nagusiak hurbiltzen zitzaizkion. Gustura zebilen lagun- eta pilotaren ehetasunak azaltzen.

Iñaki Agirrezabalak 9:00ak alderako postua jarrita zeukan udaletxe ondoko arkupean. Haren hitzetan, "badira zazpi bat urte Bergarara etortzen naizela. Urteko lehen ferietako bat izaten da hau, eta nabaritzen da jendea gogoz egoten dela; jende asko dabil gaur. Gainera, eguraldiak ere lagundu du eta giro polita dago". Aita eta ama otarregileak zituen Agirrezabalak, eta tradizioa jarraitzen du berak: "27 urterekin lanik gabe geratu nintzen, 1982an, eta txikitik, etxean ika-

sitakoari eutsi nion orduan. Gustura nabil. Urtero etortzen zaizkidan bezeroak badituzte Bergaran eta pozgarria da hori. Jendeak estimatzen ditu otarreak-eta".

KOADRILA UGARI KALEAN

San Martin plazan eta Muniben jende asko bazebilen, Seminarioan, Fraiskozurin eta Simon Arrietan ere gauza bera gertatu zen goiz osoan zehar. Antolatzaileen arabera, 200 bat postu jarri zituzten zapatuan.

Ganaduzaleak Ibargarain elkartu ziren eta han ondoan jarri zituzten Jardunekoek Txorimalo Lehiaketako lanak. XIV. ekitaldia zen aurtengoa eta 33 taldek hartu zuten parte. Graziarekin egindako lanak aurkeztu zituzten.

Seminarioan, azken urteotan bezala, hegaztiak ikusmin handia piztu zuten, gaztetxoaren artean bereziki. Hegaztiok zein espeziekoak ziren asmatzea zaila gertatzen zen batzutan.

Bazkal aurretik jendea Seminarioan eta Fraiskozurin batzen hasi zen: Seminarioan Giokelako postuan sailheskiak eta edariak agortu egin ziren, eta Jardunekoek ere talo ugari saldu zituzten. Fraiskozurin ere herritar eta kanpotar ugari hurbildu zen taloen usainera. Txorizo, hirugihar eta sagardo artean koa drila ugari ibili zen han.

Zorionez, eguraldi iragarpenak huts egin zuen eta, 12:45 inguruan eta 16:30ak aldera, zaparrada pare bat izan arren, eguzkiak jai borobiltze lagundu zuen. Erramu Zapatuko feria sendotuz doa; Aste Santuari ongi-etorria emateko eta lagunartean ibiltzeko aitzakia ona.



HEGAZTIAK Seminarioko hegaztiak ikusmin handia piztu zuten, txikiak bereziki.

JOSETXO ARANTZABAL



TALOGILEAK Aurreko urteotan bezala, Fraiskozuriko talogileek lan ugari izan zuten goiz osoan zehar.

JOSETXO ARANTZABAL



HERRI BAZKARIA Besteak beste, kupelak eta bildotsa burduntzian izan zituzten Seminarioko herri bazkarian.

JOSETXO ARANTZABAL

Herri bazkarian 170 lagun inguru izan ziren

Euskal Herriko toki askotatik etorritako artisauak eta nekazariak bildu ziren zapatuan. Badirudi Erramu Zapatuko feria hazten doala urtetik urtera, eta antolatzaileak pozik ziren jasotako erantzunarekin. Udaltzaingoren arabera, normaltasunez ospatu zen jai eta, antza denez, aurten ez ziren diru-zorroren lapurretarik egon. Seminarioan egindako herri bazkarian, 170 lagun elkartu ziren; bildotsa burduntzian jan zuten. Herritar talde batek deia luzatu arren, mahoiz jantzitako jendea, beharbada, ez zen nahi bestekoa izan. Etorkezunean gorpuzten joango den ohitura, zalantza barik.

Dorleta Kortazar > Gazte Informazio Bulegoko arduraduna

"Irten gura duenari lagunduko diogu Aste Santuko planarekin"

LEIRE KORTABARRIA > ARRASATE

Gazte Informazio Bulegoa zabalik dago gaur, astelehena, eta bihar, martitzena, eta Aste Santuko oporretarako ideiak eta informazioa behar dituztenek azken aukera dute bulegora joan eta informazio praktikoa batzeko. Dorleta Kortazar arduradunak azaldu digu zerbitzuak zelan funtzionatzen duen.

Aste Santuko oporretarako, ze motatako informazioa duzue Gazte Bulegoan?

Badaukagu hainbat gauza: informazio turistikoa, alojamentua, kanpingak, ostatuak, agroturismoak, hotelak, apartamentuak... Euskal Herriko, Estatu-ko zein mundu osoko informazioa daukagu: ze ibilbide egin daitekeen, planoak, mapak, webguneak... Nonbaitera irtetea pentsatuta duena zein ideia handirik ez duena, edozein etor daiteke, eta plana egiten lagunduko diogu.

Gazteek, baina, diru gutxi izaten dute bidaiatzeko... Horiendako ere baduzue informazioa?

Ez dauzkagu katalogo antolatuturik, baina bai era merkean bidaiatzeko aukeren gaineko informazioa. Norbere kontu,

motxila hartu eta bidaiatzeko aholkuak ere badaukagu. Lasai etor daitezela: alojamendua dela, bidaiatzeko deskontu txartelak direla... batetik eta bestetik lotu daiteke informazioa merke bidaiatzeko.

Horiek izango dira kasu ohi-koenak, ezta?

Bai; gaztetxoek diru askorik ere ez dute bidaiatzeko, eta atsedenaldirak aprobetxatzen dituzte gertuago ibiltzeko, ostatuetan lo egiteko... eta badaukagu horrelako informazioa.

Edozelan ere, Aste Santua baino gehiago, uda aprobetxatzen dute kanpora irteteko, eguraldi-gatik-eta; gehiago mugitzen dira

"Merke bidaiatzeko informazioa badaukagu: alojamendua, deskontu txartelak..."

"Interneten baliabide asko egon arren, jendeak gurago izaten du datuak eskuartean erabiltzea"

udan, motxilarekin, Interraila hartuta... Hala ere, Aste Santuan, hegaldi merkeak aprobetxatuta, aukera pixka bat dutenak animatzen dira Europara.

Asko joaten dira Gazte Bulegora oporretarako antolatzen?

Bai, gure zerbitzu "izarretako" bat da hori. Izan ere, gaur egun Interneten baliabide asko dago, baina jendeak nahiago izaten du planoak, esku-orria argazkiekin... horiek eskuartean erabiltzea, eta, alde horretatik, jendea etortzen da guregana.

Gomendatzen Dizut lehiaketa ere berriz deitu duzue...

Bai, orain hasiko gara deialdia zabaltzen. Gazteek bidaien gaineko informazioa elkarrekin trukatzeko eta truke hori saritzeko modua da. Horrez gain, sari politak daude: 12-17 urte artekoen taldean, argazkigintza edo ikus-entzunezko materiala zozketatuko dugu, 300 euroko kostuarekin; eta 18-34 urte artekoen taldean, materiala edo gustuko oporralditxo bat egiteko 500 euroko diru-saria. Orain arte, 600 gomendiotik gora batu ditugu, eta www.aizue.com blogean daude.



Dorleta Kortazar.

GOIENKARIA

OSASUNA > JARDUNALDIAK

Haurdunendako musikoterapia lantegia antolatu du Aukeak

Musikaren bidez, guraso izan behar dutenek euren nahiak, beldurrak, desioak... modu osasuntsuan landuko dituzte

L.K. > ARRASATE

Terapia mota berri bat dago aukeran, inoiz Arrasaten egin barikoa aurretik: haurdunaldirako musikoterapia lantegia. Leire Pagaldai eskoriatzarrak gidatuko ditu jardunaldiak. Apiriletik urrira izango dira saioak, izena ematen dutenetatik gehienek aukeratzen duten asteko egun eta orduan; izan daiteke martitzenetan, 16:00-17:00, edo eguaztenetan, 17:30-18:30 ordutegian. Izenematea zabalik dago Aukean (943 25 20 07 telefonora deitu behar da), eta 5 euro da hilean. Taldea osatzeko, gutxienez zortzi lagunek eman beharko dute izena; gehienez, hamabiko taldea izango da.

Leire Pagaldai dioenez, honakoa ez da ikastaroa, helburua ez delako musikoterapia tek-

nikak ikastea. "Norbere nahiak, beldurrak, desioak, urduritasunak, irrikak, gogoak... azaltzeko eta onartzeko gune apropos bat eskaintzea da helburua, hau da, haurdunaldia modu osasuntsuarekin garatzea. Ez da ikastaroa, prozesu bat baizik", dio Leire Pagaldai.

HIRU ZATI

Haurdunetik eta euren bikotekideekin batera, euren emozioak lantzeko aukera izango dute, musi-

LABUR

> EGUNA ETA ORDUA

Parte-hartzaileen gehieneko aukeratuko du: martitzenetan, 16:00-17:00, edo eguaztenetan, 17:30-18:30, izango dira.

> IRAUPENA

Apirilean hasi eta urrira arte izango da.

> IZENEMATEA

Aukean egin behar da (943 25 20 07 da telefono zenbakia). Hileko 5 euro ordaindu behar da. Gutxienez zortzi lagun behar dituzte.

ka erabilia. Horretarako, hiru ataletan banatuko dituzte saioak: bat norberari zuzendutakoa da, erlaxazioa; bigarrena taldearekin lantzeko unea da, musika tresna moduan erabilia inprobisazio lantzeko; eta hirugarrena umeari zuzendutako unea da, irudimeneraren bidez bisualizazio lantzeko. Leire Pagaldai hirugarren hori azaltzen du: "Musika entzutearekin batera, umea zelan dagoen imajinatzean datza: ze sentazio duen, eroso dagoen, mugitzen den edo ez...". Musikoterapeutaren esanetan, musika entzuteaz gain, musika modu aktiboan erabiliko dute parte-hartzaileek.

GUTXIENEZ, SEI SAIO

Parte hartzeko, eskatzen dute gutxienez sei saio egiteko aukera izatea, "prozesu bat delako eta bere denbora behar duelako", dio Pagaldai; eta norberak ikus eta senti ditzan jardunaldion onurak.

Jardunaldiak berriak dira, bestalde, eta, lehenengo eskaintza honetan jasotzen duten harre-raren arabera, gehiago antolatze-ko aukera aztertuko dute antolatz-zaileek.



ARRASATEKO INSTITUTUA

Euskal idazleekin solasean

Arrasate eta Bergarako Institutuetako ikasleak dira argazkikoak. Hain justu, institutu bi horietako Euskara Batzordeetan dabilzanak Antton Cazabon idazlearekin daude solasean. Halako beste solasaldi bat izango dute apirilaren 2an, kasu honetan, Kirmen Uribe idazlearekin.

> ELIZA

Ospakizun asko izango dira Eguen eta Egubakoitz Santuan herriko eliza gehienetan

Eguen Santuan bakarkako aitortza izango da San Joan Bataiatzailearen elizan, 10:00-12:00. Jaunaren Afariko arratsaldeko Eukaristia Arrasateko eliza guztietan egingo dute. Gaueko otoitza San Joan parrokian esango dute. Egubakoitz Santuan, Gurutz Bidea egingo dute Portaloitik Santa Barbararaino, 08:00etan. Arratsaldean, Jaunaren Nekaldi eta Heriotza gogora ekarriko dute, 17:00etan, San Joan parrokian, Mesedeetan eta Kontzepzionisten komentuan; eta 19:00etan, San Frantziskon, San Andresen eta Santa Teresan.

EUSKARA > HITZARMENA

Euskararen erabilera bultzatzeko bat egin dute Udalak eta elkarte ugari

Arlo soziokulturalean diharduten taldeak dira; batik bat, ume eta gazteekin lan egiten dutenak

Hartutako konpromisoak berresteko hitzarmena sinatuko dute apirilaren 12an, udaletxean

MONIKA BELASTEGI > BERGARA

Arlo soziokulturalean euskararen erabilera zabaltzeko egitasmoa du eskuartean azken denboraldian Udaleko Euskara Batzordeak. 2006an ekin zion egitasmoari eta orduan hasitako lana gauzatu da apirilaren 12an herriko hainbat talde eta elkarterekin sinatuko duten hitzarmenean.

BILAKAERA

2006 urtean hasi zen Euskara Batzordea arlo soziokulturalean euskararen erabilera bultzatzeko egitasmoarekin. Horretarako, batik bat ume eta gazteekin lanean dabiltzan 73 entitateekin harremanetan jarri zen eta hizkuntza egoeraren diagnosa egin zuen 2006 eta 2007 bitartean.

Txosten hartan jaso zituzten 73 elkarten artean, 30 kultura eta aisialdi taldeak; 23, kirol taldeak; bi erlijio talde eta 18 akademia eta ikastetxe. Eta horien artean egindako ikerketarekin ondorioztatu zuten taldeotan dihardutenen %86,4 euskaldunak direla eta %8,2 ia euskaldunak.

Bestalde, horietatik guztietatik haur eta gazteekin diharduten elkarteak dira 46: 12, kultura eta aisialdiarekin lotutakoak; 16, kirol elkarteak; 2, katekesi taldeak, eta 16, akademia eta ikastetxeak. Horiek guztiak kontuan izanda, %84,4 euskaldunak dira eta %11,8 ia euskaldunak.

Errealitate hori guztia aintzat hartuta eta euskara bultzatzeko kontuan izan beharrekoak aztertu eta gero, herriko taldeoi proposatzeko hitzarmena egin du Euskara Zerbitzuak eta baita taldeei erakutsi ere.

HITZARMENA

Hitzarmen hori sinatuta, euskararen erabilera bultzatzeko helburuak eta konpromisoak bere egingo ditu elkarte bakoitzak. Honako konpromisoak, besteak beste: ahalegin berezia egingo dute elkarteek zuzendaritza-organismoetako kideak eta batik bat lehendakaria, idazkaria eta diruzaina lana euskaraz betetzeko gaitasuna dutenak izan daitezen; elkartearen batzarrak euskaraz



HAUR ETA GAZTEAK Batik bat haur eta gazteekin diharduten elkarteetara jo dute Euskara zerbitzutik.

GOIENKARIA

gingo dira, ahal den neurrian eta baita bilera deiak eta aktak euskaraz jaso ere; kanpo erabilerrako elementuak euskaraz egongo dira; bazkide eta herritarrekin harremanetan izango duten pertsonak euskaldunak izan daitezten ahalegin berezia egingo da; ahalegin berezia egingo da, baita ere, entrenamendu, entsegu, ikastaro eta halakoak euskaraz izan daitezten.

Elkarteek hori guztia gauzatu dezaten, hainbat laguntza emango ditu Udaleko Euskara zerbitzuak.

DEIALDIA

Euskara batzordetik jakinarazi dutenez, hitzarmena sinatzeko interesa duten elkarten erantzunak jasotzen dihardute egunotan. Dena den, azpimarratu dute egitasmoa ez dela itxia, irekia bai-

zik, eta orain arte parte hartu ez duten elkarteek sina dezaketela hitzarmena. Hori horrela, baten batek interesa baleuka, Euskara Zerbitzuarekin harremanetan jarri besterik ez du.

Hitzarmena apirilaren 12an sinatuko dute interesa erakutsi duten elkarte guztiek, osoko bilkuren aretoan, 12:00etan, egingo den sinatze-ekitaldi publikoan.

KULTURA > IKASTAROAK

Sendabelar, areto dantza eta sukaldaritza begetariano ikastaroak antolatu ditu Udalak

Udaleko Kultura zerbitzuak antolatu ditu eta izenematea zabalik dago

M.B. > BERGARA

Udaleko Kultura zerbitzuak beste hiru ikastaro antolatu ditu datozen bi hilabeteetarako: Aretoko dantzak; sukaldaritza begetariano eta nutrizioa; eta sendabelarren gaineko ikastaroak.

Aretoko dantzak apirilean izango dira, 4an hasi eta ekainaren 27ra arte, egubakoitzetan eta izena emateko azken eguna da martxoaren 14a. Sukaldaritza begetariano eta nutrizioa ikastaroa ere apirilean hasiko da; 2an hain justu ere, eta ekainaren 25era arte iraungo du. Eskolak eguaztenetan izango dira eta izenematea da martxoaren 14ra arte.



Sendabelar ikastaroa Alberto Altubek egingo du.

JOSETXO ARANTZABAL

Sendabelarren ikastaroari dagokionez, maiatzetan izango dira eskolak: 6an, 15ean, 22an eta 29an, kultura etxean. Eskolak emango ditu Alberto Altubek. Izena emateko azken eguna da apirilaren 27a.

Ikastaro bakoitzaren prezioa da 15 euro bergarrendako eta gainerakoendako, 20 euro. Izena emateko jo kultura etxera edo deitu 943 77 91 59 zenbakira. Zozketa bidez erabakiko da nork hartzen duen parte ikastaroetan

> IKASTAROAK

Umeendako masajea eta haurren emozioak ikastaro eta tailer banatan Aranzadirekin

Aranzadi ikastolak eta Haurtxoa haurtzaindegiak umeei masajeak ematen ikasteko ikastaroa eta haurren emozioen gaineko tailerra antolatu dute apirilaren 14an, 21ean eta 28an eta maiatzaren 5ean eta 14an, 17:00-19:00 orduetartean, Aranzadi ikastolan. Prezioa 85 eurokoa da. Bestetik, *Nola lagundu haurrei beraien emozioetan* delako tailerra ere antolatu dute. Apirilaren 23an izango da, 17:00-19:00 bitartean, Aranzadi ikastolan. Prezioa 17 eurokoa da.

Izenemate epea zabalik dago Haurtxoa haurtzaindegian, eta itxiko dute martxoaren 28an. Ikastaroko zein tailerreko irakaslea Nerea Mendizabal izango da, eta bata zein bestea aurkeztu egingo ditu apirilaren 2an, 18:30ean, Aranzadi ikastolan.

> UDALAKUAK

Uztaileko udalekuan begirale izateko izenematea zabaldu du Xipizaro elkarteak

Uztaileko udaleku irekietan begirale izateko izenematea zabaldu du Xipizaro elkarteak. Hain justu ere, martxoaren 28ra bitartean egongo da zabalik izenematea, Agorrosingo ludotekan, 17:00etatik 19:30era bitartean. Informazio gehiagorako jo ludotekara edo deitu 943 77 70 95 zenbakira.

Uztaileko udaleku irekietako haurtxoen begirale izateko ezinbestekoa izango da euskara ondo menperatzea eta adinez nagusia izatea, Xipizaro ludotekako arduradunek azaldutadoren araber.

DEIALDIA > LANPOSTUAK

Bi lanpostu betetzeko deialdia egin du Udalak

Nekazal-auzoen eta Ingurumeneko teknikari plaza, eta lehen agente plaza betetzeko deialdiak dira Udalak onartu dituenak

MIREIA BIKUÑA > OÑATI

Udaletxean hutsik dauden bi lanpostu bete gura ditu Udalak, hain zuzen ere, nekazal-auzoen eta ingurumeneko teknikari plaza, eta udaltzaingorako lehen agente plaza. Otsaileko osoko bilkuran onartu zituzten deialdietarako baldintzak. Deialdia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen martxoaren 10ean; baina, eskaerak aurkezteko epea zabaldu aurretik, deialdia BOEn kaleratu behar da.

INGURUMENEN TEKNIKARIA

Nekazal-auzoen eta ingurumeneko teknikariaren betebeharrak izango dira, besteak beste, herriko nekazaritza gaietan udalbatzarrari informazioa eman, zerbitzuaren hobekuntza sustatu, Aizkorri-Aratz Parke Naturalaren kudeaketan parte hartu, Natur Eskolaren ardura izan eta Tokiko Agenda 21ean parte hartzea.

Oposaketa-lehiaketa sistema bidez beteko den lanpostura aurkezteko, Nekazal Ingeniaritza Teknikoa edo Basogintza Ingeniaritza Teknikoa bukatuta izatea eskatzen da; edo, Ingeniaritza



UDALTZAINAK Argazkian, udaltzainen bulegoa.

GOIENKARIA

Agronomoko edo Mendi Ingeniaritzako lehen hiru ikasturteak bukatuta izatea. Gainera, euskarako 4. hizkuntza-eskakizuna egiaztatu behar du.

Oposizio lehiaketan bost ariketa gainditu beharko dituzte: teorikoak hiru, praktikoa bat eta euskarari dagokiona, azkena.

Azterketako froga guztiak egin ondoren, lanpostuarekin zerikusia duten formazio ikastaroak, eta aurretik egindako lanak hartuko dira kontutan.

BI URTEKO ESPERIENTZIA

Agente lehena plaza betetzeko deialdira aurkezteko, udaltzain modura bi urteko esperientzia

egiaztatu behar da, hau da, udaltzain direnak aurkez daitezke bakarrik.


Azterketak bi atal izango ditu. Lehen atalean deialdira aurkeztu direnen merituak baloratuko dituzte, besteak beste, aurretik egindako lana, ikastaroak eta ikasketak. Bigarren atalean, azterketa teorikoa, euskarari dagokion froga eta pertsonalitate-probak baloratuko dituzte. Hortaz, bi ataletan puntu gehien lortzen duenak eskuratuko du lanpostua.

Eskaerak aurkezteko epea zabaldu ez den arren, lanpostuen baldintzak udal bulegoetan eska daitezke dagoeneko.

Institutuko bi ikasle Europara, praktikak egitera

Rodrigo Mercado Zuazola-Larraña institutuko mantentze heziketa zikloko ikasle Iban Martinezek eta Andoni Jimenezek (ondoko argazkian), lantokiko prestakuntza egingo dute ekainera arte Europara; hain zuzen, Paduan egingo dituzte 400 orduko praktikak.

Europar Batasuneko Leonardo programaren bidez, Lanbide Heziketako ikasleek, Europako enpresak ezagutzeko, eta hango herritarrekin hartu-emanak izateko aukera dute.



GOIENKARIA

ELIZKIZUNA > ASTE SANTUA

Egurenetik hasita hainbat elizkizun ospatuko dira elizetan eta monasterioetan

Auzoetako elizetan gurutze-bidea ospatuko dute Egubakoitz Santu egunean

elizkizunak egingo dira parrokiak, Agustindarren elizan, Bidaurretan, Benediktarren monasterioan eta Santa Ana monasterioan. Beheko taulan ikus daitezke elizkizunen egun eta orduak.

AUZOETAKO ELIZETAN

M.B. > OÑATI

Aste Santurako eta Pazko Egunerako hainbat elizkizun ospatuko dira herriko elizetan eta monasterioetan. Eguren Santu, Egubakoitz Santu, Zapatu Santu eta Pazko-domeka egunetan,

Egubakoitz Santu egunean gurutze-bidea ospatuko dute herriko hainbat auzotan, hain zuzen ere, Uribarriko elizan (09:00etan), Olabarrietako elizan (11:00etan), eta Zubillagako elizan (11:00etan).

Elizkizunen ordutegia

Martxoak 20, Eguren Santu

18:00: Parrokian.
19:30: Agustindarren elizan.
18:30: Bidaurretako elizan.
18:00: Benediktarren elizan.
19:30: Santa Anako elizan.

Martxoak 22, Zapatu Santu

20:30: Parrokian.
20:30: Agustindarren elizan.
21:30: Bidaurretako elizan.
21:30: Santa Anako elizan.
21:30: Benediktarren elizan.

Martxoak 21, Egubakoitz Santu

17:30: Parrokian.
18:00: Agustindarren elizan.
17:00: Bidaurretako elizan.
17:00: Benediktarren elizan.
19:30: Santa Anako elizan.

Martxoak 23, Pazko-domeka

11:00: Parrokian.
13:00: Parrokian.
12:30: Bidaurretako elizan.
12:30: Agustindarren elizan.

ETXE BIZITZAK > IZENEMATEA

Kasablankako etxeetarako bulegoa itxita Aste Santuan

Gainontzeko egunotan, martxoaren 26ra arte, ohiko ordutegiarekin zabalduko dute

M.B. > OÑATI

Kasablankan egingo diren etxebizitza tasatuetarako izena emateko bulegoa martxoaren 19tik 24ra itxita egongo da, Aste Santuko oporrak direla-eta. Gainontzeko egunetan, martxoaren 26ra arte, honako ordutegiarekin zabalduko dute: astelehenetan, 10:00etatik 12:00etara; martitzenetan, 12:00etatik 14:00etara; eta, eguaztenetan, 16:00etatik 18:30era.

BALDINTZAK

Eskaerak hainbat baldintza bete behar dituzte. Alde batetik, zozketan parte hartzeko ez da derrigorrezkoa Oñatin erroldatua egotea, baina, lehen-tasuna izango dute. Diru kontuei dagokionez, 2006. urteko diru-sarrerak hartuko dira kontutan. Hain justu ere, 27.000 eta 54.165 euro artekoak izan behar dira, eta etxeko guztien sarrerak hartuko dira kontutan.

> ZERBITZUAK

Udal bulegoak, liburutegia eta kiroldegia itxita egongo dira martxoaren 19tik 24ra, biak barne

Aste Santuko egunetan itxita egongo dira udal zerbitzu gehienak, hain zuzen, martxoaren 19tik 24ra. Kultura etxeak ez du zerbitzurik emango egun horietan, besteak beste, itxita egongo dira liburutegia, mediateka, KZ gunea eta zine aretoa.

Udal bulegoak ere ez du zerbitzurik emango Aste Santuan. Dena dela, Zapatu Santu egunean, udaltzainak lana egingo dute. Bestalde, kiroldegia, eguaztenean, Zapatu Santu eta Pazko-domeka egunetan zabalik egongo da, eta gainontzeko egunetan, itxita. Gainera, Osakidetzak agintzen duen garbiketa egiteko, igerilekua itxita egongo da martxoaren 25era arte. Itxiera aprobetxatuko dute lehengo sarrera zegoen tokian komuna egiteko.



BATZAR OROKORRA Eguenean egin zuten batzar orokorra Basotxokoek.

MIRARI ALTUBE

ARETXABAETA > ERRETIRATUAK

Urteko batzar orokorra egin dute Basotxokoek

Aurtengo aurreikuspenak esan eta zuzendaritzako kide berrien izenak ezagutarazi ziren egunean

M.ALTUBE/M.BITERI > ARETXABAETA
Basotxon batzar orokorra egin zuten egunean. Hasteko, joan zen urteko balorazioa egin zuten, defizita 450 eurokoa izan zela azalduz.

Ondoren, aurten 31.021 euroko diru sarrerak izango dituztela eta 31.600 euro inguru gasta-

tuko dituztela azaldu zuen zuzendaritzak. Aurreikusitako ekimenen berri ere eman zuen. Hala, sei bidaiara egingo dira; bost egun batekoak eta seigarrena hiru egunetakoak, Extremadurara.

Mendi irteerak ere ez dira faltako herri ingurutik eta baita ibarretik ere. Horrez gain, bost

bat hitzaldi antolatuko dituzte, eta baita ikastaroak ere, ordenagailua eta mugikorra erabiltzen ikasteko. Gastronomia lehiaketak eta mahai-jolasak ere izango dira. Azken horren harira, bingoa jarri nahi dutela esan dute.

Zuzendaritzako kide berriak ere aurkeztu zituzten bileran: Imanol Arantzabal, Javier Sanz eta Jesus Mari Martinez. Kuota ere igoko zaie Basotxoko 940 bazkideei, bost eurotik seira.

ESKORIATZA > ASTE SANTUA

Udal-zerbitzuek ordutegi berezia izango dute datozen egunetan

Udaletxeak, Kultur etxeak, kiroldegiak, liburutegiak, ludotekak, gaztelekuak eta museoak ordutegi berezia dute asteotan

M.B. > ESKORIATZA

Aste Santuan nahiz Pazkoa Astean udal-zerbitzuek izango duten ordutegia jakinarazi du Udalak. Udaletxea, esaterako, itxita egongo da hilaren 19tik 24ra bitartean, biak barne. Pazkoa Astean, berriz, goizez egongo da zabalik, 10:30etik 13:30era. Ostegunean, hala ere, 15:00etatik 17:00etara ere zabalik izango ditu ateak.

Kultur etxea eguaztenetik martxoaren 30era egongo da itxi-

ta; liburutegiak eta gaztelekuak ez dute zabalduko jaiegunetan. Lehenengoa goizez eta arratsalde egongo da zabalik Pazkoa Astean, barikuan izan ezik; 10:30etik 13:00etarako ordutegia izango du.

GAZTELEKUAREN IRTEERA

Gaztelekukoak, berriz, Bermeoko Mañu aterpetxera joango dira martxoaren 28, 29 eta 30ean. Gai nontzeko egunetan ez dute Gaztelekua zabalduko.

Ibarraundi museoa, berriz, 12:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara bisitatu ahal izango da Aste Santuko egunetan, zapatuan izan ezik. Egun horretan arratsaldez bakarrik egongo da zabalik. Pazkoa Astean, bestalde, goizez irekiko dute Ibarraundi museoa, 09:00etatik 14:00etara bitartean.

Ludotekan ere ordutegi berezia izango dute. Goizeko ordutegia izango dute, 11:00etatik 13:00etara bitartean. Hainbat ekimen antolatu dituzte ludoteka zabalik egongo den egunetarako. Gaur, esaterako, hamarretakoa izango dute eta bihar, berriz, pelikula emanaldia izango dute umeek. Hilaren 25ean, ipuin kontaketa; 26an, kanpo jolasak; 27an, eskulanak eta martxoaren 28an, aldiz, altxorra bilatzen ibili beharko dira umeak.

Kiroldegiari dagokionez, azkenik, hilaren 24an, astelehenean baino ez da itxita egongo. Martxoaren 19tik 23ra 09:30etik 13:00etara zabalduko dute; Pazkoa Astean 09:00etan zabalduko dute eta 21:00ra arte egongo da irekita; hilaren 29an, berriz, goizez eta arratsaldez, eta 30ean, goizez bakarrik.

> ARETXABAETA

Dantza egipziarrak ikasteko aukera eskainiko du Jaiki elkarteak, apirilaren 2tik aurrera

Aretxabaleako Jaiki elkarteak hainbat ikastaro antolatu ditu datozen hilabeteetarako. Apirilaren 2tik ekaina bukaera bitartean, adibidez, dantza egipziarrak ikasteko aukera izango dute interes dutenek. Kurtzebarri eskolan izango da hori, eguaztenean, 19:00etatik 20:30era. Langileendako 35 euro balioko du eta gainontzekoendako, berriz, 25 euro.

Horrez gain, dantza libre topaketak egingo dira, hilabetean behin, eguenean, 18:00etatik 20:30era bitartean. Saio bakoitzak zortzi euro balioko du. Ikastaro horietan izena emateko 653 70 50 68 telefono zenbakira deitu beharra dago. Azken horretan izena emateko epea apirilaren 17an amaitzen da.

> ARETXABAETA

Atzo zabaldu zen azken aldiz ludoteka domeka arratsaldeetan, negu parteko egutegiagatik

Jakina denez, negu partean ludoteka zabalik egon da domeka arratsaldeetan, 17:30etik 19:30era, zortzi eta hamabi urte bitarteko umeendako. Atzo izan zen zabalduko azken eguna. Behar bezalako amaiera emateko, jaia ospatu zuten han, ginkana eginez.


Balorazio ona egiten du Gazte teknikari Edurne Kortak. "Pozik gaude. Gurasoekin kanpora joaten ez zirenean, ludotekara hurbiltzen ziren-eta". Domekero, 10 eta 15 ume bitartean izan dira. Eskulanak egiteko aukera izan dute egun horietan, baita mahai-jokoekin jolasteko ere. Otsailaren 17an, gainera, izotz pistara joan ziren 28 ume, Gasteizera. Horixe izan da aurten antolatutako ekimen arrakastatsua.



GOIENKARIA

Presoen aldeko bertso-afaria

Presoen aldeko bigarren bertso-afaria egin zuten orain dela astebete, Egokiena elkarteak. Guztira, 33 lagun elkartu ziren. Ainhoa Agirre-zaldegi elgetarrak eta Amaia Agirre villabonarrak kantuan ibili ziren. Asier Ibaibarriagak gai-jartzaile lanak egin zituen. Irudian, Agirre-zaldegi, Agirre eta Xanti Iparragirre eskoriatzarra azaltzen dira.



Hirusta
Jatetxea

Ilargi plaza 4
943 79 06 57
ARETXABAETA

IRIARTE

Umeen
denda
Helduen
lentzeria



Durana 8
Tel.: 943 79 10 96
ARETXABAETA

LEINTZ GATZAGA > AZPIEGITURA LANAK

Kaleak zulatzen hasi dira hodiak sartzeko

Udaletxe aurrean dabilta lanean, eta autoak ezin dira sartu zuzenean iparraldeko sarreratik

MIRARI ALTUBE > LEINTZ GATZAGA

Aurreikusitako moduan martxo-ko lehen astean hasi dituzte azpiegitura lanak Gatzagan. Udaletxe aurrean hasi dituzte, udaletxe alboko parketik iparraldeko sarrerara bitartean, hain zuzen. Horregatik, automobilak ezin dira sartu zuzenean herrira; iparraldeko sarreratik sartzen direnek buelta eman behar diote udaletxeari eta herri eskolari herri erdira ailegatzeko. Eguraldia lagun izan dute langileek lehen egunetan, eta garrantzitsua izango da hori bukaera epea bete ahal izateko. Aurreikusitako moduan joanez gero lanok irailean bukatuko dituzte. Oraingoz ez da sor-

tu arazorik lanekin -ur mozketatik txiki bat besterik ez-, eta aurrerantzean ere herritarrei ahal den eragozpenik txikienak sortzea gura du Udalak.

JAURLARITZAREN LAGUNTZA

Bigarren faseko azpiegitura lanak dira joan zen astean hasitakoak. Zangak egokituko dituzte, ur beltzen saneamendua berri- tu, gasarendako hodiak sartu eta argiteria publikoa berri- tu. Lehen fasekoak 2006an egin zituzten, eta orduan berri- tu ez zuten herri-ko zatirik handiena egingo dute orain: Pilar kalea; San Migel plaza eta frontoi ingurua; eta Erronda pasealekua, hain zuzen.

Arrasateko Aikia enpresa dabil lanak egiten, Udalak hala aginduta. Eta 291.162 euroko aurrekontua daukate. Kopuru osoa, baina, ez du ordainduko Udalak, Jaurlaritzak 169.000 euroko dirulaguntza bideratuko du azpiegiturak hobetzeko eginbeharrerara. Halaxe iragarri zuen Etxebizitza eta Gizarte sailburu den Javier Madrazok abenduan herrira egin zuen bisitan. Hiriguneak oso garrantzitsuak direla herritarren bizi kalitatea bermatzeko esan zuen orduan, eta "udalekin elkarlana bultzatu gura dugu hiriguneak eraberritzeko", gaineratu zuen.

Bigarren faseko lanok bukatutakoan gasa izango dute herri-ko etxebizitza gehienek. Hala ere, hirugarren faseko lanei itxaron beharko diete beste batzuek.



LANAK San Migel plazan, udaletxe aurrean, zulatu dute kalea azpiegitura lanak egiteko.

M.A.

ANTZUOLA > HIZTEGIA KALEAN

Herriko 14 eta 20 urte arteko gazteei banatu die Udalak 'Berdintasunerako hiztegia'

Emakumeen eta gizonen izaera ulertzea du helburu eta hitzen definizioez gain, azalpenak ere jaso dituzte

IRATI AGIRREAZALDEGI > ANTZUOLA

Zutik-Ezker Batua-Aralar Udal taldeak *Berdintasunerako Hiztegia* gertatu du. Udalbatzarrean aho batez onartu ostean, martxoaren 8ko, Emakumeen eguneko, ospakizunen aitzakian 14-20 urte bitarteko gazteei bidali diete.

Hiztegia egiteko arrazoia izan da emakumeen eta gizonen izaera hobeto ulertzea eta elkarren arteko harremanak hobetzea. Hiztegia gertatu dutenen esanetan, "historian zehar, gizonei eta emakumei buruzko pentsaerak eta iritziak aldatzen joan dira. Aurreko belaunaldietan ezkutuan egon ziren egoerak eta praktikak agerian geratu dira, komunikabideetan, kalean eta lagun artean daude, unibertsitateetan ikerketa gai dira... Hala ere, batzuetan hitzak falta zaizkigu errealitate hauei ize- na jartzeko edo zaila egiten zaigu hainbat kontzeptu ulertzea, sarri ez direlako modu egokian erabiltzen".

HIZTEGI XUMEA

Elkarrekin lotura duten hitzak bata bestearen jarraian ipini dituzte, esanahiak hobeto ulertzeko, ordena alfabetikorik gabe, ordea. Horrela osatu dute, hain zuzen ere, hiztegi xume hau.

Jaso dituzten hitzak dira: sexualitatea, homosexuala, homofobia, bisexuala, trabestia, transexuala, prostituzioa, generoa, estereotipoa, genero aniztasuna, genero indarkeria, identitatea, sexismoa, matxismoa, patriarkatua, berdintasuna, parekotasuna eta feminismoa.

Hitz bakoitzaren ondoren definizioa ez ezik beste azalpen batzuek ere gehitu dituzte.



PARTAIDE UGARI Ipuin lehiaketako parte-hartzaileak.

PAULINO

ARAMAIO > IPUIN LEHIAKETAKO SARI BANAKETA

Herriko arazoak izan dituzte hizpide zenbait ipuinek

44 lagunek hartu dute parte Txirritolaren ipuin lehiaketan eta guztiek jaso dute diploma bat

ARRITXU BARRUSO > ARAMAIO

Eguen arratsaldean guraso eta ume pila bat elkartu ziren Aramaioko kultura etxean. Txirritola elkarteak ipuin lehiaketaren sari banaketa egin zuen 19:00etan.

Txirritola elkartetik azaldu dute pozik daudela aurkeztutako ipuinen mailarekin. Mota guztietako ipuinak jaso dituztela adierazi dute. DBHko ikasle- len lanak herriko arazoak izan dituzte hizpide: Abiadura Handiko Trena eta gazteen egoera, besteak beste. Lehen Hezkuntzako goi zikloko ipuin gehienak herriko hainbat lekutan kokatuta daude. Txikitxoek, berriz, ohikoa den moduan, fan-

tasia hutsean jardun dute. Guztiek ere maila polita erakutsi dutela azaldu dute Txirritola Euskara Elkarteko kideek.

SARIAK

Lehen Hezkuntzako 1. eta 2. mailako ikasleek taldean idatzi zuten ipuina. *Bordatxikiko misterioa* eta *Hankaluzeren abentura* dira saria jaso duten ipuinak. 3. eta 6. maila bitartean, Mikel Uribarriarana, Jon Izaga, Pello Arriolabengoa eta Joseba Arrizabalaga izan dira irabazleak. DBHko mailan, berriz, Aratz Amenabarrek eta Julen Axpek jaso dute saria. Parte-hartzaile guztiek diploma bana jaso zuten.

ELGETA > HELDUENDAKO ESKOLAK

Gaur, astelehena, egingo dute lehenengo informazio bilera kultura etxean

Udalak helduendako eskolak antolatu nahi ditu herrian datorren ikasturtean eta zenbat interesatu dauden jakin behar du

jakiteko bilera egingo dute gaur, astelehena, 19.00etan udaletxean.

SEI IKASTARO

Eskainiko diren ikastaroak euskara, ingelesa eta frantsesa dira. Astean bi egunetan bi orduko eskolak izango dira. Kultura orokorra eta irakurketa-idazketa ikastaroa antolatzeko aukera ere badago. Kasu bietan egunero bi orduko eskolak izango dira.

Ikastaro guztiak oinarri oinarritzkoak dira. Udalak azaldu du graduatua lortzeko ikastaroak egiteko Bergarara joan behar dela.

Gaur, hilak 17, udaletxean egingo den bilera garrantzitsua da, beraz. Udalak interesatutako jende kopuruaren arabera egingo baitio eskaera Eusko Jaurlaritzari.

LARRAITZ ZEBERIO > ELGETA

2008-2009 ikasturterako aukera dago helduen hezkuntza programa barruan hainbat ikastaro herrian egiteko. Matrikula epea irailean irekiko da, baina maizterako jakin behar du Udalak herrian talderik osatuko den edo ez. Udalak Eusko Jaurlaritzari eskaera egin behar dio eta gutxienez jende kopurua behar da ikastaroak martxan jartzeko. Horregatik, eta interesatuta zenbat jende dagoen

Kirola



> FUTBOLA
Banako berdinketa Ibarren, UDA eta Mondraren arteko derbian **> 16**



> ESKUBALOA
Mailari eusteko urrats garrantzitsua eman zuen Bergarak, Escopalios irabazita **> 19**

> ELKARRIZKETA

Javier Arconada arrasatearrak Oreretan jokatu zen canicross lasterketan hartu zuen parte martxoaren 2an. Iron txakurrarekin laugarren tokian sailkatu zen Arconada **> 20**



PODIUMA XVII. Oñatiko Duatloiko irabazleak podiumean, Andoni Gartzia Kirol zinegotziarekin batera.

MAIDER ARREGI



IRTEERA Argazkian duatloiko parte hartzaileak irteerako unean, Oñatiko plazan.

JOSETXO ARANZABAL

DUATLOIA > OÑATIKO XVII. DUATLOIA

Laurent Galinier eta Ainhoa Murua nagusi

Lehen debagoiendarra Ander Agirre bergararra izan zen zapatuan

MAIDER ARREGI > OÑATI
Euskadiko Duatloi Txapelketako hirugarren proban Laurent Galinier frantsesak eskuratu zuen

garaipena. Oso gertutik bi segundotara, Felix Martinez helmugaratu zuen. Lortutako emaitzarekin oso gustura gelditu zela esan zigun frantziarrak. Maila ezin hobea zegoela gaineratu zuen. Proba osoan bateratsu joan ziren, bai lasterketan eta baita bizikletan ere. Helmugako azken metrotan erabaki zen garailea. Galinierrek Oñatiko proba oso polita eta gogorra dela nabarmendu zuen. Gai-

nera bere aurtengo lehen duatloia izanik, sasoiaren dagoela gaineratu zuen. Lehen debagoiendarra Ander Agirre izan zen eta lehen oñatiarra Ekaitz Osa.

Emakumezkoetan Ainhoa Murua nagusi. Minutu gutxira Virginia Berasategi izan zuen lasterketako proban. Deskargara bidean, ordea, bizikletaren katea atera zitzaion eta Berasategik aurrea hartu zion. Hala ere,

Udana jaisten nagusitu zitzaion Murua. Orain munduko probetara begira daude biak; Murua Australiara joango da hilaren 30ean eta Berasategi Lanzaroteko Iron probara, maiatzaren 24an.

ORAIN ARTEKO JENDETSUENA

Guztira 340 lagunek hartu zuten parte duatloian. Euria egin arren, dena oso ondo atera zen eta antolatzaileak pozik azaldu ziren.

sailkapenak

LEHENENGO NESKAK

1. Ainhoa Murua	1:53:24
2. Virginia Berasategi	1:54:00
3. Lucia Garate	2:00:22
4. Inma Rafael	2:02:43
5. Amaia Ostolaza	2:03:17

DEBAGOIENEN FEDERATUAK

7. Maria Oartzabal	2:10:28
13. Iratxe landa	2:27:27
14. Izaskun Berasategi	2:33:12

LEHENENGO MUTILAK

1. Laurent Galinier	1:41:42
2. Felix Martinez	1:41:44
3. Nicolas Capoferri	1:45:14
4. Asier Etxezarreta	1:45:36
5. Mikel Monasterio	1:45:46

DEBAGOIENEN FEDERATUAK

13. Ander Agirre	1:46:49
14. Beñat Arnaiz	1:46:54
16. Ekaitz Osa	1:48:18
17. David San Martin	1:48:21
29. Asier Oartzabal	1:51:09
51. Andoni Illarramendi	1:53:44
54. Aitor Rementería	1:53:55
62. Raul Montiel	1:54:25
63. I. Uribetxebarria	1:54:30
69. Imanol Erle	1:54:49
75. Aitor Sotil	1:55:42
76. Aritz Kortabarria	1:55:44
78. Edu Perez	1:55:49
80. Roberto Gartzia	1:55:58
83. Ricardo De Goñi	1:56:20
85. Igor Lazkano	1:56:26
89. Josu Odriozola	1:57:10
92. Joseba Iturraspe	1:57:23
107. Jose Manuel Benitez	1:59:17
112. Julen Kortabarria	1:59:23
119. Harkaitz Gainzarain	1:59:48
121. Juan Carlos Rueda	1:59:52
129. Miguel Angel Igartua	2:00:36
136. Mikel Vazquez	2:00:48
137. Mikel Larrañaga	2:00:48
149. Roberto Vazquez	2:01:23
162. Iban Agirrebeña	2:02:22
170. Mikel Mugika	2:02:46
171. Iban Da Silva	2:02:46
180. Iban Perez	2:04:10
193. Agustin Heis	2:05:30
204. Gotzon Mendizabal	2:06:48
211. Juan Miguel Coronado	2:07:26
217. Gaizka Aranburu	2:08:09
224. Juan Sanchez	2:08:57
234. Andoni Bilbao	2:12:03
238. Jose Luis Santesteban	2:13:39
241. Iñigo Regueiro	2:14:22
247. Iker Sologaitoa	2:15:09
259. Iñigo Hernandez	2:18:51
266. Nestor Arenaza	2:21:46
Gorka Anduaga	-
Eduardo Jose Ruesga	-
Beñat Zubillaga	-
Lorenzo Alonso	-

Oharra: www.txantxiku.net/duatloia.htm
helbidetik ateratako zerrenda.

PREFERENTE > UDA-MONDRA

Bi zati oso ezberdin izan zituen partiduan, azkenean, berdinketa

UDA

1-1

MONDRA

Uda > Elgarresta, Sanchez, Garai, Ruben, Irigi (Gonzalez, 56. min.), Lopez, Orueta (Uribetxerria, 61. min.), Igartua (Arana, 92. min.), Arriaga (Agirre, 75. min.), Erik eta Gomez.

Mondra > Ruiz de Azua, Amuxastegi, Loiti, Laspiur, Arazkonaga, Urtzelai, Bereziartua, Heriz, Muruamendiarrak (Garai, 53. min.), Lopez, Alzola (Aranbarri, 53. min.) eta Garin.

Bestelakoak > Ikusle ugari Ibarrian.



AUKERAK SORTZEN UDA behin eta berriz gerturatu zen Mondraren atera.

JOSETXO ARANTZABAL

LARRAITZ ZEBERIO > ARETXABAETA

Puntu bana lortu zuten atzo, Ibarrian, UDAk eta Mondrak. Lehengo zatian etxeko taldea izan zen jaun eta jabe. Aukera asko sortu zituzten, eta gola 30. minutuan egin zuten. Gomezen jaurtiketak ondo urrundu zuen Mondrako atezainak, baina Orueta argi ibili zen eta bueltan etorritako baloia sarea bidali zuen zuzenean.

Arrasatearrak atsedenen ostean esnatu ziren; irabazteko beste grina batekin irten ziren aldagelatik. Gainera, lehenengo zatian UDAko jokalariek egindako lanak bueltak ekarri zizkien eta etxeko taldearen nekeak nabarmen erraztu zizkien gauzak zuri-moreei.

BERDINKETAREN GOLA

Mondrak 59. minutuan egin zuen berdinketaren gola. Garinek egin zuen area erditik baloia zuzen zuzenean Elgarrestaren atera bidaliz. "Guretzako ez da emaitza ona", adierazi du Mondrako entrenatzaile Igor Gordobilek. "Irabaztera etorri gara, eta berdinketarekin konformatu beharko dugu.

UDAk guk baino joko hobea egin du lehenengo zatian, baina uste dut atsedenen ostean buelta eman diogula egoerari eta hiru puntuak merezi izan ditugula. Aukera batzuk sortu ditugu, eta nire ustez, gainera, epaileak ez du gure aldeko penalti oso garbi bat adierazi...". Gordobilek esan du pozik dagoela jokalarien joko tak-

tikoarekin, baina psikologikoki lan handia dutela oraindik ere egiteko.

UDAko entrenatzaile Igor Arenazak onartu du bigarren zatian Mondrak min handia egin diela. "Fisikoki asko jaitsi dugu maila eta asko galdu dugu zelai erdian. Gordobilek asmatu egin du aldaketekin".

PREFERENTE MAILA > 26. JARDUNALDIA

Berdinketa Azkoagainen, Zumaiakoren kontra

0-0 egin zuten Aloña Mendik eta Zumaiakok atzo, Azkoagainen jokaturako partiduan

ALOÑA MENDI

0-0

ZUMAIAKO

GOIATZ ARANA > OÑATI

"Ahalegindu gara, baina ez da posible izan" esan zigun Josu Zubia Aloña Mendiko entrenatzaileak, atzoko norgehiagokaren ondotik esku hutsik geratuta. Lehen zatian ez zen lehia han-

dirik izan: talde biak pareko ibili ziren, eta ez bata ez besteak ez zuten aparteko jokorik egin; bigarren zatian, baina, oñatiarrek maila hobea erakutsi zuten, Zubiaren esanetan. Ahaleginak ahalegin, ez zuten golik egin, ordea, eta berdinketarekin amaitu zen partidua.

BIGARREN ZATIAN HOBETO

Zaleek partidu hobez gozatu ahal izan zuten bigarren zatian, etxeko mutilak lehen 45 minutue-



INDARBERRITUTA Atsedendialki on egin zien etxeko jokalariei.

JOSETXO ARANTZABAL

tan baino finago ibili baitziren. Entrenatzaileak egindako sistema aldaketa batek izan zuen horretan eraginik: erdialdeko jokalariren bat aurrean izan zuen uneoro, eta horrek mesede egin zion erasoan Oñatiko taldeari. Euren izan zen baloiaren jabetza, eta gol aukerak ere izan zituzten. Zumaiakoko atezainak ere ondo bete zuen bere lana, ordea, baloiari euren atean sartzen utzi barik, eta, hala, hutsean geratu

ziren oñatiarren gol aukerak. Agerikoa zen Zumaiako ez dagoela oso urrun sailkapeneko azken postuetatik; gogor etorri ziren, eta ez zuten oparirik egin. Oñatiarrek zorrea ez zuten aldeko izan, eta epailearen erabaki batekin ere ez ziren gustura: "Gure aldeko penalti garbi-garbi bat izan da, baina arbitroak falta moduan adierazi du", kontatu zigun Josu Zubiak. Bi astetako atsedena dute orain.

emaitzak eta sailkapenak

PREFERENTE MAILA

Sailkapena	Puntuak	JP
1. Ordizia	52	26
2. Real Union	51	26
3. Berio	49	26
4. Trintxerpe	46	26
5. Ondarroako Aurrera	44	26
6. Aretxabaleta	43	26
7. Mondra	41	26
8. Hondarribia	35	26
9. Hernani	33	26
10. Euskalduna	32	26
11. Idiazabal	31	26
12. EHU/UPV Vasconia	30	26
13. Aloña Mendi	29	26
14. Anaitasuna	26	26
15. Zumaiako	25	26
16. Eibartarrak	23	26
17. Zestoa	22	26
18. Touring	21	26

Emaitzak

Aloña Mendi-Zumaiako	0-0
Vasconia-Zestoa	2-0
Real Union-Idiazabal	1-1
Hondarribia-Anaitasuna	1-0
Berio-Eibartarrak	4-0
Ordizia-Hernani	1-0
Euskalduna-Trintxerpe	1-2
UDA-Mondra	1-1
Ondarroa-Touring	1-0

Hurrengoak

Zestoa-Aloña Mendi	
Idiazabal-Vasconia	
Anaitasuna-Real Union	
Eibartarrak-Hondarribia	
Hernani-Berio	
Txintxerpe-Ordizia	
Mondra-Euskalduna	
Touring-UDA	
Zumaiako-Ondarroako Aurrera	

BESTELAKOAK

LEHENENGO ERREGIONALA

Bergara-Lagun Onak	0-0
Soraluze-Antzuola	0-2

BIGARREN ERREGIONALA

Aretxabaleta-Gazteak	2-2
Kostkas-Mondra	2-0
BTLs-Union Txiki	3-2
Elgeta-Eibartarrak	1-2

OHOREZKO GAZTEAK, IGOERA

Herrerako Sporting-Aretxabaleta	0-1
Anaitasuna-Bergara	1-1

OHOREZKO GAZTEAK, KOPA

Aloña Mendi-Burumendi	6-1
Orioko-Mondra	2-1

LEHENENGO MAILAKO GAZTEAK, IGOERA FASEA

Ilintxa-Aretx. Arizmendi B	4-1
----------------------------	-----

OHOREZKO KADETEAK, IGOERA

Lengokoak-Aloña Mendi	atzeratua
Bergara-Tolosa	4-1

LEHENENGO MAILAKO KADETEAK, IGOERA FASEA

Arrasate-Zarautz	2-1
Aretxabaleta-Lagun Onak	3-5

OHOR. INFANTILAK, TXAPEL DUN FAS.

Bergara	atsedena
Aretx. Arizmendi	atsedena

EMAKUMEZKOAK, IGOERA

Hernani-BTLs	4-1
--------------	-----

EMAKUMEZKOAK, KOPA

Arizmendi-Bergara	zintzilik
Mondra-Zestoa	6-0
Urola-Arizmendi B	3-0



125 urte, etengabe, gure gizartearen ongizatearen alde lanean. Orain, adituek esaten digute kanpaina zirrargarri baten bidez eman beharko genukeela aditzera. Baina ezagutzen gaituzu. Guk nahiago zuri pertsona adimen-ezinduentzat Azpeitiko Antxieta Jauregian egin ditugun etxebizitzak erakutsi.

Inbertsio osoa Gizarte Ekintzan: 84 milioi €
Gizarte Ekintza, kutxaren izateko arrazoia.

zer nahi duzu bihar?

www.kutxa.net

 kutxa

ANTXIETA JAUREGIA
13:30 06/02/20

SASKIBALOA > IGOERA FASEA

Merinoren taldeak beste pausu bat eman du aurrera

Mondragon Unibertsitateak errepasoa eman zion Iruñeko taldeari eta lehenengo postuan jarraitzen du

MONDRAGON UNIBERTSITATEA

98-61

CNP IRUÑEA

Mondragon Unibertsitatea > Gamarra (16), Zeziaga I. (7), Mallabiabarrena (5), Arejolaleiba, Peña (7), Atxa (14), Kintana (15), Hernandez (8), Alartzia (17) Zeziaga A., Biain (9) eta Elortza.

Iruñeko Igeriketa Taldea > Montesino (6), Rekalde (10), Zabaltza (3), Berenguer (2), Erroba, Vinagre (7), Sesma (12), Cadenas (13) eta Dito (8).

Laurdenetako emaitzak > 27-17 / 55-37 / 79-47 eta 98-61.

zieten. Ez zen, ordea, norgehiagoka erraza izan. Etxekoak gainetik ibili ziren partidu guztian, baina aurkariak ez zuen ezer oparitu.

Lehenengo laurdenean, hamar puntuko tartea zabaldu zuten zuri moreek markagailuan. Garaipena ziurtatu egin nahi zuten arrasatearrek, eta bigarrenetan 18 puntura zabaldu zuten tarte hori. Markagailuak 55-37ko emaitza jasotzen zuen, jokalariek aldagarako bidea hartu zutenean, atse-denerako.

ZALEEN FESTA

Aspaldiko partez Etxeko taldearen jokoa bertatik bertara ikusteko aukerak zale ugari erakarri zituen Iturripera. Lehenengo bi laurdenetan, harmailetan ere urduritasuna zen nagusi. Gauzak bide onetik zihoazela ikusita, ordea, animatu egin zen kontua ikusleen artean ere, eta atsedenen ondotik etorri ziren txalo zaparradak, animu hitzak eta txantxak.

LARRAITZ ZEBERIO > ARRASATE

Etxean aspaldi partidurik jokatu barik zeuden, eta ondo baino hobeto ikusi genituen zapatuan Iruñeko taldearen aurkako norgehiagokan. Errepaso ederra eman zieten nafarrei; 37 puntuko aldea atera



ANTOLATZAILEA Alartzia kapitainak lan bikaina egin zuen zapatuko partiduan.

JOSETXO ARANTZABAL

Hirugarren laurdena nahasi xamarra izan zen. Markagailuari buelta emateko itzaropenean Iruñeko jokalariek jokoa bizkortzea erabaki zuten, baina huts handiak egin zituzten. Azkenean, talde nafarraren laurdenik kaskarrena izan zen. Etxekoek 32 puntura zabaldu zuten tartea markagailuan. Zaleendako orduan iritsi ziren partiduko unerik ikusgarrienak.

Guztiak ondo atera ez izan arren bikainak izan ziren hirunako zenbait jaurtiketa; Gamarrak eta Kintanak hiruna lortu zituzten, Alartziak bi eta I. Zeziagak bat.

Nafarrak ezinean ibili ziren. Azken minutura arte ahalegindu ziren eta horren adierazgarri da azken laurdenean lortutako emaitza partziala; 19-14. Baina etxeko taldeak aurretik egindako lana handia zen.

ASTEBETEKO ATSEDENA

Datorren aste bukaeran Iñaki Merinoren mutilek ez dute partidurik jokatu. Hilaren 29an, Urdenetaren aurka neurtuko dituzte indarrak etxetik kanpo. Bide onean dugu MUko taldea. Igoera faseko sailkapeneko lehenengo postuan jarraitzen du, eta beraz, mailaz igotzeko aukera guztiak zabalik dauzka oraindik ere. Beste lau partidu jokatu dituzte etxean.

ESKUBALOA > SENIOR NESKAK

Garaipenarekin bukatu du Oñatiko taldeak txapelketa

VERKOL ALOÑA

31-19

ELORRIO

GARAIPEN ERRAZA

Maitane Ruiz entrenatzaileak hiru jokalariren faltarekin egin zion aurre atzoko partiduari. Baja izan ziren Ainhoa Unamuno, Olatz Manuel eta Miren Zubeldia.

"Ondo jokatu dugu", adierazi du Ruizek. "Erasoan asmatu egin dugu eta baloiak sartu egin dira. Defentsan ere oso ondo ibili gara, eta atezainak lan bikaina egin du".

Elorrio sailkapeneko azken taldea zen, eta ez du denboraldi guztian partidurik irabazi. "Baloi asko galdu dituzte eta ez dute erasoan asmatu", jakinarazi du Ruizek. "Hasieratik jarri gara aurretik markagailuan. Atsedeneko emaitza 15-11 izan da".

L.Z. > OÑATI

Atzo, domeka, jokatu zuen txapelketa erregularreko azken norgehiagoka Aloñako senior taldeak. Elorrio taldea izan zuten aurrez aurre Zubikoan, eta etxekoak hasieratik jarri ziren aurretik markagailuan.

Garaipena lortzea ezinbestekoa zuten mailari eusteko. Hemendik aurrera, San Adrian taldearen azken emaitzak erabakiko du oñatiarren etorkizuna.



JOKO ONA Erasoa eta defentsan asmatu zuten oñatiarrek.

JOSETXO ARANTZABAL

DENBORALDI IRREGULARRA

Oñatiarrek, orain, Kopako txapelketa dute buruan. Apirilaren 20an jokatu dute lehenengo norgehiagoka Bera Bera taldearen aurka, Zubikoan.

Maitane Ruiz pozik dago taldeak egindako lanarekin, txapel-

keta irregularra egin dutela onartzen badu ere. "Irabaztea aurretikusten genituen norgehiagokak galdu egin ditugu eta kontrakoa ere gertatu zaigu askotan. Orain, baina, Kopa dugu aurretik eta txapelketa horretan ahalegindu behar dugu".

ESKUBALOA

Aloñako gazteek 13-18 irabazi dute

L.Z. > OÑATI

Amaitu dute denboraldia Oñatiko gazte mailako neskek. Bilbon jokatu dute azken norgehiagoka San Adrian taldearen aurka eta 13-18 irabazi dute.

Hasieratik jarri ziren aurretik oñatiarrek. Atsedeneko emaitza 8-10 izan zen. "Erasoan gorabehera batzuk izan ditugu, baina defentsan ondo ibili gara eta aurrera atera dugu partidua", adierazi du Erik Fuenten entrenatzaileak.

LAUGARREN POSTUAN

Sailkapeneko laugarren postuan amaitu dute oñatiarrek. "Nahiko ondo, kontuan hartuta jende gutxiarekin ibili gara eta lesio asko izan ditugula", esan du Fuentek.

ESKUBALOIA > EUSKADIKO TXAPELKETA

Escolapiosi irabazita, bizirik dagoela erakutsi zuen Bergarak

BERGARA

31-27

ESCOLAPIOS

Bergara > Jon Zangitu, Iñaki Manuel (8 gol), Gorka Ugalde (4), Hodei Lenisoro, Gorka Gartzia, Josu Agirre, Mikel Larrañaga (1), Gorka Uribe (4), Jon Kapelastegi, Aitor Aldanondo (2), Ruben Sanchez (7), Iñaki Najera (1), Mikel Plazaola (3) eta Xabier Najera.

Escolapios > Gonzalez, Ferraraz (3), Zenarru-zabeitia (1), Maranguan (3), Palamo (3), Montero (8), Lafuente (5), Velazquez (1), Uriarte (2), Rodriguez eta Prado (1).

Bestelakoak > Ohiko ikusleak Labegarrietan, Erramu Zapatuko eguna ospatu arren.

EDU MENDIBIL > BERGARA

Oraindik bizirik dagoela erakutsi zuen Bergarako taldeak zapatuan, Escolapios taldearen aurka. Etxekoek urrezko bi puntu eskuratu zituzten mailari eusteko borrokan. Jardunaldi borobila izan zen bergararentzat, euren aurretik dagoen Gure Jorge Fernandez taldeak Basaurin galdu egin zuen-eta. Gauzak horrela, Gure Jorge Fernandezek puntu bakar bateko alde ateratzen die. Hurrengo jardunaldia erabakigarria izango da: bi taldeak aurrez aurre izango dira Gasteizen, Aste Santuaren ostean.

Zapatuko partiduari dagokionez, Bergarak kemena eta indarra erakutsi zituen neurketa osoan zehar. Lehen zatia amaitu baino lehen (14nako berdinketa) Mikel Larrañagak aldagelarako bidea hartu behar izan zuen, kol-



BIZIRIK Mailari eusteko aukerak ditu Bergarak. Argazkian, Mikel Plazaola, zapatuan jaurtiketa bat eginen.

JOSETXO ARANTZABAL

pe baten ondorioz, bekoki inguruan lau puntu eman behar izan zizkioten-eta. Baina etxekoak ez ziren kikildu eta ordezkoek lan bikaina egiteko gauza direla erakutsi zuten jarraipenean. Lesio bat gainditu berri duen Mikel Plazaolak ia partidu osoa jokatu zuen, guztiz errekupekatuta dago-

ela agerian utziz; defentsa lanean bikain jardun zuen, eta erasoan hiru gol egin zituen.

DEFENTSAN BIKAIN

Defentsa izan zen partiduko klabeetako bat. Edu Orgaz entrenatzaileak 5-1eko defentsa agindu zuen, Escolapios taldeko gizon

arriskutsuena, Lafuente, gelditze-ko asmoz. Helburu hori lortuta, erasoan ez zuten hutsik egin etxekoek. Kanpokoak aurretik jarri ziren 10 minuturen faltan (23-24), baina Bergara ez zegoen geratu punturik alde egiten uzteko. Erreakzioa etorri zen berehala, balio handiko garaipena lortuz.

> FUTBOLA

Gazte mailako Realeko txapelketako bi partidu gurean

Realak urtero antolatzen duen gazte mailako txapelketako bi partidu jokatu dira aurten Debagoienean: zapatuan, hilaren 22an, Bartzelonak jokatu du Agorrosin, 17:00etan. Kataluniarrek Gipuzkoako selekzioa edo Osasuna izango dute aurrez aurre.

Domekan, berriz, Oñatiko Azkoagainen Real Madrilek talde bi hauetako baten aurka jokatu du: Reala edo Auxerre. Partidua 17:00etan hasiko da.

Aurtengo ekitaldian sei talde izango dira lehia: Real Madril, Bartzelona, Osasuna, Gipuzkoako selekzioa, Auxerre eta Reala.

> FRONTENIS

Udal Pilotalekuan jokatu da ibarreko txapelketa

Ibarreko kirol zerbitzuek antolatuta, Debagoieneko X. Frontenis Txapelketa jokatu da apiriletik ekainera bitartean. Joan den urtean 16 bikote izan ziren lehia, eta kopuru hori gainditzea da antolatzaileen asmoa. Txapelketako berrikuntzarik nagusiena zera da: partiduak Bergarako Udal Pilotalekuan jokatu direla. Txapelketako lehen fasea liga erara jokatu da, eta ondoren kanporaketak etorriko dira.

Izen-ematea zabalik izango da, gaurtik apirilaren 2a bitartean. Argibideak Bergarako Agorrosin Kirol Gunean, 943 77 70 95 telefono zenbakian.

ATLETISMOA > ESPAINIAKO TXAPELKETA

Mailen Axpek zilarrezko domina ekarri du Oviedotik

Lore Mar bosgarren sailkatu zen; Lide Pagaldaik gazte mailako txapelketan izan zen Donostian

E.M. > BERGARA

Maialen Axpe bigarren sailkatu zen kadete mailako pertika zuziko proban, zapatuan Oviedon. Arrasatearrak 3,16 m-ko jauzia egin zuen eta lau aldiz hobetu zuen Euskadiko marka (3 m): 3,01 m, 3,06 m, 3,11 m eta 3,16 m-ko jauziak egin zituen Axpek. Julia Lopatkina izan zen arrasatearra gainditu zuen bakarra, 3,21 m-ko jauziarekin.

Lore Mar 5. tokian sailkatu zuen, 2,96 m-ko jauziari esker. Bestalde, Eukene Dorronsorok ez zuen 60 m-ko lehen kanporaketa gainditu; 8,50 segundoko marka egin zuen. Oviedoko pista estaliko Espainiako txapelketan 400 bat gaztetxo elkartu ziren.

Donostian, gazte mailako txapelketan, Lide Pagaldaik, pertika jauzian, huts egin zuen 2,71 m-ko altuerarekin.



PERTIKA Argazkian, atzetik hasita, Lore Mar, Maialen Axpe eta Lide Pagaldai gaztetxoak, Mojategin.

J.A.

Javier Arconada > Atleta

"Txakurraren adina kontuan hartuta emaitza ona da lortutakoa"

ARANTZAZU EZKIBEL > ARRASATE

Javier Arconada arrasatearra Ore-retan jokatu zuen Canicross lasterketan parte hartu zuen martxoaren 2an, *Iron* txakurrarekin. Lehenengo aldia izateko, ezin hobeto ibili zen arrasatearra; laugarren geratu zuen sailkapen orokorrean eta Euskadiko lehenengoa izan zen.

Lehenengo eta behin, azaldu egiguzu zer den canicrossa.

Esan daiteke ohiko kros baten antza duela canicrossak; baina, korrikalariak, txakur bat darama berari lortuta. Arnes bat eta lokarri elastiko baten bidez, txakurra korrikalariaren gerrira lotzen da. Horretarako, baina, korrikalariak gerriko berezi bat izan behar du.

Helburua, txakurrak zu eramatea da; korrikalaria beti atzetik joan behar da. Elurretan lera-ekin egiten den antzerakoa da baina, kirol honetan atzekoa lera-joan beharrean korrika doa.

Gurean ez da kirol ezaguna. Non hasi zen?

Ez nago ziur, baina, badakit Frantzia zaletasun handia dagoela. Gainera, txakurrekiko errespetua ere handiagoa da han. Hortaz, Frantzia lasterketa ugari egiten dira. Orain dela hiru urte, Katalunian hasi ziren txakurren lasterketak egiten; eta, Madril-en ere egiten izan dituzte. Martxoan Oreretan jokatu zena lehenengo edizioa izan zen.

Oreretakoa zure lehenengo lasterketa izan zen. Nola bururatu zitzaizun parte hartzea?

Bai, lehenengoz aurkeztu nintzen Oreretara. Betitik izan dut kirola egiteko zaletasuna. Antxintxika triatloi taldean ibili naiz; orain arte, triatloietan eta parte hartu izan dut. Baina horrelako lasterketa gogorak alde batera utzita ditut. Gerora, txakurra erosi nuen eta harekin ateratze nintzen korrika egitera. Halako baten, Oreretan jokatu behar zen lasterketako kartela ikusi nuen eta izena ematea erabaki nuen.

Zelakoa izan zen Oreretako lasterketa?

Mendian egin genuen lasterketa, 7 kilometro eta erdikoa. Ez zen oso luzea izan; nik uste dut, mota honetako lasterketak ez direla luzeak izaten txakurrak

sufritu egiten duelako. Txakurrak ondo tiratzen badu, sufritu egiten du.

Egia esan, Oreretako lasterketa nahiko gogorra izan zen; gora behera asko zituen eta. Mendi pistetan jokatu zen; gutxi gora behera, Besaidera joatea bezala izan zen. Ordu erdi iraun zuen lasterketak.

Emaitza ona izan zenuen. Gustura geratu zara egindako lanarekin?

Lasterketako sailkapen orokorrean laugarren geratu nintzen; Euskadi mailan, baina, lehen izan nintzen.

Kirol honetan urte batzuk daramaten korrikalariak lau edo bost urteko txakurrak dituzte; hortaz, uste dut emaitza onartu nuela kontuan hartuta nire lehenengo aldia zela eta txakurra gaztea dela. Lehenengo postuetan Kataluniako batzuk geratu ziren eta, haiek esan zidaten oso txakur ona daukadala.

Oreretakoa Euskadi mailan jokatu den lehenengo lasterketa izan da?

Oraingoz ez da beste lasterketarik jokatu Euskadi mailan. Espainia mailan, txapelketa bat jokaten da eta datozen egunotan txapelketa honetako hainbat lasterketa izango dira; Pontevedran bat eta Sorian beste bat. Oreretako emaitza ona ikusita, Soriako lasterketara joateko asmoa daukat.


Aurretik, triatloiak egiten ibilitakoa zara. Noiz hasi zinen atletismoan?

Beti izan naiz kirol zalea baina orain dela bost urte inguru hasi nintzen lasterketak jokatzen; triatloiak eta bestelako lasterketak egin izan ditut orain arte. Azkenaldirako nekatu egin nintzen eta alde batera uztea erabaki nuen. Gainera, bizkarreko arazo bat izan nuen tarteko.

Bestalde, horrelako lasterketan parte hartzeko asko entrenatu behar da eta nekatu egin nintzen. Gero, txakurra erosi nuen eta txakurrarekin entrenatzen hasi nintzen.

Zer egin behar da horrelako lasterketetan parte hartzeko?

Lasterketetan parte hartzeko, nahikoa da izena ematea. Badago federazioa, baina izena ema-



Javier Arconada arrasatearra, *Iron* txakurrarekin.

JOSETXO ARANTZABAL

"Triatloiak eta bestelako lasterketak egin izan ditut; orain, txakurrarekin nabil"

"Ez da komeni txakurra txikia denean korrika egitera ateratzea; arazoak izan ditzake"

tea oso garesti ateratzen da. Hortaz, ez naiz federatu.

Zenbat denbora daramazu txakurrarekin?

Txakurra orain urte bete erosi nuen, hiru hilabeterekin; urte bat eta hiru hilabete ditu txakurrak. Ez da komenigarria txakurra txikia denean korrika egitera ateratzea, hazteko arazoak izan ditzake eta. Horregatik, orain lau hilabete hasi nintzen txakurrarekin korrika. Daukan adina kontuan hartuta, emaitza onak eman ditu.

Nolako entrenamenduak egin dituzu?

Normalean, bide gorrian ibiltzen naiz; Arrasate eta Eskoria-tza artean. 13 kilometro inguru egiten ditut egunero. Aste bukatetan, berriz, Udalaiz aldera joaten naiz. Txakurra mendian ibiltzera ohitzeko, batez ere.

Txakurrak beste entrenamendurik egiten du?

Ez, ez ditu entrenamendu bereziak egiten baina heziketa hartzera eramaten dut. Obedien-

tzia eta bestelakoak dira heziketa saio horietan lantzen dugunak, ez du zer ikusirik korrika egitearekin.

Nolako da lasterketa hauetarako txakur egokia?

Egia esan, arraza askotako txakurrak ibiltzen dira lasterketan. Ez dago, arraza jakin bat lasterketarako. Baina, bereziki, zuntzekoa izatea beharrezkoa da. Bestalde, tamaina aldetik ertaina izan behar da eta bizitasun handikoa.

Aurrera begira, beste lasterketaren batean parte hartzeko asmorik baduzu?

Oraingoz, Soriako lasterketa jokatzeke asmoa daukat; martxoaren 30ean jokatu da; baina, datorren denboraldiari begira, lasterketa gehiagotan parte hartzeko asmoa daukat. Urriaren inguruan hasiko da denboraldi berria.

Soriako lasterketa zortzi kilometrotakoa izango da. Oreretan egin nuen lasterketarekin gustura geratu nintzen; hortaz, itxaropentsu noa.

LEINTZ BAILARA

Gol guztiak dira garrantzitsuak, eta saltoka ospatu zituzten

GAZTEAK Areto futbolearen aritu ziren Leintz bailarako neska-mutikoak eta, kantxan, ez zegoen txantxarik

GURASOAK HARMAILETAN Umeak animatzen, guraso taldeak batu ziren Iturripeko harmailetan

IZERDI PATSETAN Golak egitea ez da gauza erraza, eta egindako bakoitza saltoka ospatu zuten gaztetxoek

LARRAITZ ZEBERIO > ARRASATE

Zapatuan, Eskola Kirola jardunaldia izan zuten Leintz bailarako eskola-umeek, Iturripen eta Gazteluondoko kiroldegian. Areto futbolearen aritu ziren, eta laster antolatu zituzten taldeak. "Zu atezain, zu aurrean, zu defentsan..." Irakasleek egiten dituzte taldeak, eta txandatu egiten dituzte gaztetxoak, banan-banan postu guztietan jokatzeko aukera izan dezaten.

Iturripe kiroldegian, bi eremutan banatu zuten kantxa, eta antolatzaileek bi norgehiagoka jarri zituzten martxan, batera.

Gazteek erakutsi zuten nahiko ondo ezagutzen dituztela areto futbolaren arauak. Eta betiko moduan, neka ezinak dirudite haurrek. Jokaldi bat bukatu bezain pronto, eman nahi izaten diote hasiera hurrengoari, eta epailea zirikatzen dute mugi dadin.

GURASOAK HARMAILETAN

Eskola Kirola jardunaldiak umeak hurbiltzen ditu kirolera, baina baita gurasoak ere. Txandala soinean asko ikusi genituen zapatuan Iturripen.

Multzoka eserita, txaloekin animatu zituzten umeak. Golak harmailetan ere ospatu zituzten. Gol guztiak, gainera. Jokaldi onek ere izan zuten erantzuna harmailetatik. Datorren astean atsedena hartuko dute Eskola Kiroleko gazteek. Aste Santuko oporrak dituzte, eta aste bukatuera orok hitzordua bertan behera utziko dute.



Santa Teresa. Ane, Aritz, Ioritz, Jone eta Sahonmy elkarrekin aritu ziren.



Aramaio eta Andra Mari. Jone, Guri, Mikele, Unai, Teresa eta Eduk beste talde bat osatu zuten.



Gazteluondo. Jon, Asier, Markel, Beñat, Andoni, Max, Amaia eta Oihan.



Gazteluondo. Idoia, Eider, Maria, Olaia eta Deiane izan ziren taldekideak.


HERRI KIROLEN BEREZITASUNAK



Leire eta Alaitz
Santa Teresa



Maider eta Hosalla
Santa Teresa



Teresa, Edu eta Mikel
Arrasate

Atsedendian saskibaloian jokatzeko aukeratu dugu bikotea. "Bigarren aldia da areto futbolearen jokatzeko dugula. Gustatzen zaigu. Nekagarria da, baina ez da zaila. Gustura etortzen gara zapatu goizetan Eskola Kirola egitera. Aste bitan entrenatzen dugu kiroldegian. Gainera, ezagunak dira gure aurka jokatzeko duten taldeak. Dibertigarria da oso eta astean zehar horretan pentsatzen egoten gara".

Partidu biren artean atsedena hartzen aurkitu ditugu bi neskek. "Areto futbola saskibaloia baino gehiago gustatzen zaigu: trebeagoak gara hankekin eskuekin baino. Auskalo zergatik! Irakasleek egiten dituzten taldeak, eta gure partiduak jokatu ostean etxera joango gara. Gustura etortzen gara. Gaur, gainera, arerioak ez dira hain onak. Ea zorte pixka batekin kopa irabazten dugun".

"Ondo jokatu dugu, baina ezin da beti irabazi! Aurrean izan dugun taldea ona da. Ondo zabalitzen dira kantxan eta ezustean harrapatzen gaituzte askotan. Estrategia ona dute". Gustura etortzen omen da laukotea zapatuetan Eskola Kirola egitera. Tereri pixka bat gehiago kostatzen zaio, baina, azkenean, ondo pasatzen du. "Areto futbola ondo dago, dibertigarria da", esan digu Mikelek.



**Hedabide
guztietarako
telefono berria
eta bakarra**

943 25 05 05



Goienkaria ASTELEHENKO **Goienkaria**




Goiena.net
Debagoieneko Interneteko ataria

G2a

Goienka2a > KULTURA ETA AISIALDIA



> **ANTZERKIA**
'Made in Xina'
antzezlanaren egin
zuten barikuan
Espaloian > 24



> **BERTSOAK**
Zapatuan Beñat
Alberdi eta Endika
Ruiz sailkatu ziren
finalera > 24



> **KANTARI**
Oraingo astean
GOITBn emitituko
diren taldeetako
kantariak > 26



> **ELKARRIZKETA**
Saroi Jauregi
aurkezleari
elkarrizketa egin
diogu > 29



HIP HOP ETA RAP GAUA Barikuan, Nafarroatik etorritako hiru talderen hip hop eta rap doinuez gozatzeko aukera izan zen 360 aretoan.

JOSETXO ARANTZABAL

Euskal Herriko hip hop doinuak nafarren eskutik 360 aretoan

Hip hop doinu nafarrek 3.60 aretoko giroa berotu zuten barikuan

LUR (Leyenda Urbana) Iruñako Txantrea auzoko taldeak hirugarren diskoa aurkeztu zuen

IAGO CASCON > ARRASATE

Arima rockeroa agerikoa da Arrasaten. Baina 3.60 aretoak badaki beste musika estilo batzuei lekua egiten. Are gehiago pizkunde azpimarragarria daukan estilo bati. Hip hop jaialdia izan zen barikuan 3.60 aretoan. Nafarroako hiru talde aritu ziren: Iruñako LUR (Leyenda Urbana); Atarrabiako ZTK Rap; eta Uharteko Puto Punki, hain zuzen ere.

Telebista eta filmetan ikus daitekeen AEBetako iruditik urrun, Euskal Herrian eginiko hip hopaz gozatzeko aukera izan zen. Ehun pertsona inguru ger-

turatu ziren. Nafarroatik edota Santanderetik etorri zirenik ere izan zen Arrasaten.

EUSKAL HERRIKO HIP HOP-A

Puto Punki gazteak eman zion hasiera gauari. Bere berba jarioarekin harrিতuta utzi zituen bertaratutakoak; gaueko ezustea izan zen zalantzarik gabe. Estilo oldarkorraz eta etengabeko jarioaz giroa berotu zuen. Leher eginda bukatu zuen eta ia ahots gabe, dena emanda. Eskertzekoa benetan egin zuen lana. Atzetik zetozenendako maila altua utzi zuen Iruñako gazteak. Bigarren, ZTK

Rap taldekoak taularatu ziren; hiru abeslari eta disko-jartzaila. Azken honek eman zion taldeari berezitasuna. Hain zuzen ere, berak eginiko musika baseak zuzeneko bikaina eman zion.

Eta gauari amaiera emateko Txantreako LUR taldea. Ibilbide luzea dauka eta 1996tik euskal hip hoparen aitzindariak dira. Estudioko hirugarren lana aurkeztu zuten *En el interior*. Estilo aldaketa nabarmena izan dute eta zuzenekoan igarri zen hori. Abesti zaharrak berriekin tartekatu zituzten. Abesti berriak ordea aipatzekoak dira, izan ere, zuzen-

nekoetan gitarra doinuak sartzen baitituzte. Taldearen jarraitzaile batzuei gehiegi gustatu ez zitzaizen arren, Leyenda Urbana taldearen musikari beste dimentsio edo aukerak zabaltzen dizkiola iruditu zitzaigun.

JARRAITZAILE SUTSUAK

Jaialdi berezia izan zen zalantza gabe. Gainera, ikusleen jarrera beroa aipagarria da. Break dance egitera animatu zirenik ere izan zen. Bukatzeko, disko jartzailak hip hopen jartzen jarraitu zuten gaueko ordu txikiak arte, giroa gehiago alaituz eta berotuz.

GAIA > OÑATIKO V. BERTSO TXAPELKETA

Beñat Alberdi eta Endika Ruiz bertso txapelketako finalerako sailkatu dira

Pako taberna gainezka eta bertso zaleak oso gustura parte hartzaileen mailarekin

Bertso txapelketako finala martxoaren 29an jokatu da Arrano elkartearen

EGOITZ AIZPURUA > OÑATI

Oñatiko V. Bertsolari Txapelketako hirugarren kanporaketa jokatu zen zapatuan, Pako tabernan. Beñat Alberdi eta Endika Ruizek eskuratu zuten puntuazio altuena eta beraz, finalerako txartela eskuratu zuten. Finala, martxoaren 29an, zapatuan egingo da Arrano elkartearen.

Zapatuan, 18:00etarako prest zegoen guztia Pako tabernan, gaitzartzailea, bertsolariak, epaileak eta publikoa. Dena prest eta denak hirugarren kanporaketak emango zuen emaitzaren jakin-minez. Iñaki Igartua, Beñat Alberdi, Arantzazu Sagarzazu, Endika Ruiz eta Egoitz Atxaga ziren saiko protagonistak eta boskote honetatik bi lagun bakarrik pasako ziren finalera.

Agurretan argi utzi zuen bakoitzak bere asmoa. Doinu bereziak erabiliz ederki eman



HIRUGARREN KANPORAKETA Argazkian, Arantzazu Sagarzazu kantuan, zapatuko saioan.

OÑATIKO BERTSO ESKOLA

zioten hasiera bakoitzak bere saioari. Zortziko nagusiko ariketetan, Endika Ruizek ederki borobildu zuen bere lana eta orokorrean ondo joan zen ariketa hau. Zortziko txikian, Beñat Alberdi-

ren lana gailendu zela argi utzi zuten entzuleen txaloei jendea biluzik imajinatzeo paperean kantatu zutenean.

Puntuari erantzutea eta lau oinekin bertsoa osatzea izan

zuten hurrengo lana bost gazteek. Ariketa honek eman zizkieten lanik handienak bertsolarietara. Arantzazu Sagarzazuk bere lanik politena ariketa honetan osatu zuten.

KARTZELAKOIA

Kartzelako ariketan bertso bakarra bota behar izan zioten denek gai berdinari. Ondo erantzun zuten orokorrean bertsolarietara ariketa honetan. Aipatzekoa Iñaki Igartuak egindako ahalegina habaneran kantatu zuenean.

Agurren aurretik txapelketako antolakuntzak eskerrak eman zizkieten bertaratutako guztiei eta bereziki Pako tabernako langileei kanporaketetan zehar izandako jarrera eta lagunkoia eta esker onekoagaitik.

Azken agurretan, bertsolariak lasaturik zeudela, bertso ederrak entzun ziren Pako tabernan, Egoitz Atxagak Gu ta Gutarrak taldeak beraien diskan argitaratutako doinu bat plazaratu zuen jendearen eskerrona eta txalo zaparradak lortuz. Honenbestez, epaia irakurtzerako orduan, saioan puntuazio altuenak izan zituzten bi bertsolariak Beñat Alberdi eta Endika Ruiz zirela argi geratu zen.

Beraz, martxoaren 29an Arrano elkartearen jokatu den finalerako osatuta geratu da seikotea. Hauek Oñatiko Bertso Txapelketako finalera txartela eskuratu dutenak: Ander Lizarralde, Joseba Lasagabaster, Joseba Igartua, Xabier Pascual, Beñat Alberdi eta Endika Ruiz izango dira. Txapelari eskua luzatu nahian lehian arituko dira, baina horretarako, bertsoan egin beharko dute onenaren pare.



JOSETXO ARANZABAL

Golpe de Estado taldeak diskoa aurkeztu zuen Haizea tabernan

Golpe de Estado talde oñatiarrak kaleratu berri du *Mi prision* diskoa. Diskoak 10 kantu azkar, indartsu eta melodiko batzen ditu. Barikuan Aretxabaletako Haizea tabernan kontzertu borobila eman zuten Sospechosos talde oñatiarrarekin batera.

Kontzertu agenda bete bete daukate eta Euskal Herrian ez ezik Espainiako Estatuko hiriburueta ere joango dira kontzertuak ematera. Laster gainera prestatzen ari diren bideoklipa ere ikusgai izango dugu.



IKUSLEGOA 150 lagunek ikusi zuten antzezlana.

JOSETXO ARANZABAL

ANTZERKIA > 'MADE IN XINA'

Absurdian oinarritutako umorea izan zen Espaloian


GOIATZ ARANA > ELGETA

Cascai Teatre antzerki talde kataluniarreko aktoreek lan ona egin zuten Elgetako Espaloian bariku gauean. *Made in Xina* antzezlana taularatu zuten. Kolorea, efektu bereziak, mimoa eta keinuak erabiliz, ikuslearen barrea eragitea zuten helburu, umore eta bur-la giroan. Eta lortu zuten; bai, behintzat, antzerkia ikustera

ohituta daudenenei dagokienean. Izan ere, absurdian oinarritutako umorea zuen ardatz antzezlanean, umore zaila, inondik ere.

Txinako produktuen gaineko kalitate kontrolean lanean diharduten hainbat lagunengatik papera jokatu zuten aktoreek. Euren bizipenak, lan egiteko moduak, ilusioak, penak... azaldu zituzten.

Debagoieneko WEBGUNEAK



AHOLKULARITZAK

ASEGI
www.asegim.com
ESTRADÓS
www.consultoriaestrados.com
LIZKER
www.lizker.com

AKADEMIAK
BASTIDA
www.bastida.es

ALTZARIARIK ETA APAINKETAK
BZ SISTEMAS
www.goiena.net/blogak/BZ-sistemas

ANTZINAKO ALTZARIARIK
ZUMADIA
www.zumadia.com

ARETOAK
360 ARETOA
www.360aretoa.com

ARGAZKIAK/ARGAZKILARIARIK
MARIA JESUS
www.mjargazki.com

ARROZTEGIAK
ARREGI
www.goiena.net/blogak/arregi
AZKARATE
www.goiena.net/blogak/azkarate
UGARTE
www.goiena.net/blogak/ugartearotza

ARKITEKTURA ESTUDIOA
BIARK
www.goiena.net/blogak/biark

ARRANDEGIAK
ITSAS EDER
www.goiena.net/blogak/itxaseder

ASEGURUAK
AXA ASEGURUAK
www.axawinterthur.es
BRIZ ASEGURUAK
www.goiena.net/blogak/briz-aseguruak
LAGÜN ARO
www.segurosragunaro.com

AUTO - KONTZESIONARIOAK
4QUATTRO4
www.4quattro4.com

BITXITEGI TAILERRA
OSKAR VITORIA
www.oskarvitoria.com

EGUZKI OIHALAK
TOLDOS LETE
www.toldoslete.com

ELEKTRIZITATE INSTALAZIOAK
ARETXARGI
www.goiena.net/blogak/aretxargi
GORLA
www.goiena.net/blogak/gorla

ELEKTRIZITATE MATERIALAK
SETALDE
www.setalde.com

ELKARTEAK
EUSKAL HERRIKO MAHAI-FUTBOL
FEDERAZIOA
www.goiena.net/blogak/ehmff

ERAIKUNTZAK
CONSTRULAN
www.construlansl.com

ERROTULOAK
PANDO
www.goiena.net/blogak/pando
ROTUDENAK
www.rotudenak.com

ESKULANAK
IZEDER
www.goiena.net/blogak/izeder

ESTETIKA ZENTROAK
ANGELA
www.angelaestetika.net
GUZTIZ EDER
www.goiena.net/blogak/guztizeder
KIZKUR
www.kizkur.com
LILURA
www.goiena.net/blogak/lilura

FISIOTERAPIA ZENTROA
EKIN
www.goiena.net/blogak/ekin

FORMAZIOA
LEGE SOZIOLOGIA INSTITUTUA
www.iisj.es

GARAJEAK / KONPONKETA
AMG AUTOAK
www.amgautoak.com
AUTOS ARETXA
www.autosaretxa.com
GALLASTEGI MOTOR SPORT
www.goiena.net/blogak/gallastegi
JC RACING
www.goiena.net/blogak/jcracing

GARBIKETAK
HEMEN
www.hemen-garbiaketak.com
DENETIK GARBITASUN
MEKANIZATUA
www.goiena.net/blogak/denetik

GIMNASIOAK
IRUDI SPORT
www.goiena.net/blogak/irudisport
ZAINDUZ
www.goiena.net/blogak/zainduz

GOZOGINTZA EKOLOGIKOA
ETA INTEGRALA
GALGORRI
www.goiena.net/blogak/galgorri

HARATEGIA
LANDALUZE
www.goiena.net/blogak/galgorri

HAUR PARKEAK
OKIPARK S.L
www.goiena.net/blogak/okipark

HESTEBETAK
URDEKI
www.goiena.net/blogak/urdeki

HIZKUNTZA AKADEMIARIK
MONDRAGON LINGUA
www.mondragonlingua.com
LA PUERTA AL INGLES
www.goiena.net/blogak/puerta-ingles

HOTELAK
HOTEL MONDRAGON
www.hotelmondragon.com

IKASTETXEAK
ARETXABALETA INSTITUTUA
www.iaretxabaleta.com
ARIZMENDI IKASTOLA
www.arizmendi.ikastola.net
ELKAR-HEZI IKASTETXEA
www.elkarhezi.com
MONDRAGON UNIBERTSITATEA
www.mondragon.edu

ILE-APAINDEGIAK
IRUDI
www.comercialerrekabarren.com
RICHI
www.goiena.net/blogak/richimaier
KIZKUR
www.kizkur.com

INDUSTRIA HORNIDURAK
SUMINISTROS UGARTE
www.suministrosugarte.com

INFORMATIKA
DCA COMPANY
www.dcacompany.com
ARITU
www.aritu.com

INGENIARI GEOLOGIKOA
HARRILUR
www.harrilur.com

INMOBILIARIARIK
KOROSTI
www.inmkorosti.com

INPRIMATEGIA
EGUZKIGRAF
www.goiena.net/blogak/eguzkigraf

ITURGINTZA ETA BEROGINTZA
URBIETA
www.goiena.net/blogak/urbieta
URKO MANTENIMIENTO, S.L.
www.goiena.net/blogak/urko

JANARIAK
ERREKABARREN FRUTADENDA
www.comercialerrekabarren.com
GERTU
www.goiena.net/blogak/gertu
ARANTXA PRODUKTU FRESKOKOAK
www.goiena.net/blogak/arantxa

JANTZI DENDAK
MARKIEGI
www.goiena.net/blogak/markiegi
UDALAITZ
www.goiena.net/blogak/udalaitz

JATETXEAK
BASTER ALDE
www.baster-aldejatetxea.com
DRAGON ORIENTAL
www.goiena.net/blogak/dragon-oriental
DUKIENA
www.goiena.net/blogak/dukiena
GOIKO BENTA
www.goikobenta.com
MAULANDA MERENDERUE
www.goiena.net/blogak/maulanda
IXAUN
www.goiena.net/blogak/ixaun
OTZETA
www.goiena.net/blogak/otzeta

TABERNA BERRI
www.goiena.net/blogak/tabernaberri
ZUMELAGA
www.zumelaga.com

KIROL DENDAK
LAINO. SKATE & SNOW
www.laino.info

KONGRESU ETA BILKURAK
GANDIAGA TOPAGUNEA
www.gandiagatopagunea.com

LANDETXEAK
ARTEAGA
www.artegalandetxea.com
ATERBE
www.aterbe.com
LAMAÑO-ETXEBERRI
www.goiena.net/blogak/lamaino-etxeberri
UXARTE
www.uxarte.net

LANTEGI ETA TAILERRAK
BATUAK S.A.
www.batuak.com
GAURKO, S.A.U.
www.gaurkosa.com
LINEAS LASA
www.lasa.es
MIRVAT
www.mirvat.com
PERFIPAR
www.goiena.net/blogak/perfipar
TALLERES CARPINS S.L.
www.carpinsa.com
SEIN BATU, S.L.
www.sein.es

LEIHOAK
ARGI-PLASTIK
www.goiena.net/blogak/argi-plastik
EGO
www.goiena.net/blogak/ego
ION LEHIOAK
www.puertasyventanas-ion.com

LORADENDAK
EKILORE
www.goiena.net/blogak/ekilore
KLOROFILA
www.klorofila.com
LORELAN
www.goiena.net/blogak/lorelan
MAYTE
www.goiena.net/blogak/mayte

MERTZERIAK
LEINTZ KINKILADENDA
www.comercialerrekabarren.com

OINETAKOAK
KORO ZABALETA
www.goiena.net/blogak/korozabaleta
MARI KARMEN
www.comercialerrekabarren.com

OKINDEGIAK
AIASTUI
www.goiena.net/blogak/aiastui
BEROGI
www.goiena.net/blogak/berogi
OGIZUN
www.goiena.net/blogak/ogizun

OPARIAK
MERKEOPARI
www.goiena.net/blogak/merkeopari

OPTIKAK
MULTIOPTICAS LARRAÑAGA
www.goiena.net/blogak/multioplicas
INSTITUTO OPTICO
www.goiena.net/blogak/optico

OSTALARITZA
GARAIA OSTALARITZA
HORNIKETAK
www.goiena.net/blogak/garaia

PROIEKTUAK ETA DEKORAZIOA
FORMAK
www.formak.net
IPAR PROJECT
www.iparproject.com

PUBLIZITATE AGENTZIAK
AKORT-PUBLICIDAD
www.akort-publicidad.com

SUKALDERAKO ALTZARIARIK
BOLU
www.goiena.net/blogak/bolusukaldeak

TABERNAK
EZKUTU
www.goiena.net/blogak/ezkutuorly
ORLY
www.goiena.net/blogak/ezkutuorly
GUREA
www.goiena.net/blogak/gurea
HAMAİKA... TABERNA
www.goiena.net/blogak/hamaikataberna
ZIRIPOT
www.goiena.net/blogak/ziripot

TATUAJEAK
GANESHA
www.goiena.net/blogak/ganesha

TAXIAK
GORKA GARAI
www.goiena.net/blogak/gorkataxi

UDAL ZERBITZUAK
GAZTEEN INFORMAZIOA
BULEGOA
www.aizue.com
ARRASATEKO EUSKARA
BIZIBERRITZEKO PLAN NAGUSIA
www.goiena.net/blogak/aebpn

UMEENDAKO ARROPA
HAURTXXOA
www.goiena.net/blogak/haurtxoa

ZERAMIKAK ETA BAINUAK
URBIETA
www.goiena.net/blogak/urbieta
GELATZU
www.gelatzu.com

ZERBITZU DIGITALAK
ATAI
www.goiena.net/blogak/atai

ZUR LANTZAILAK
ELEJALDE
www.goiena.net/blogak/elejalde

Saioen emanaldiak GOITBn



NOIZ > Martxoaren 18an.
ORDUA > 20:15ean.
TALDEA > Jone Eguren,
Miren Azkarate, Usue
Aspiazu eta Uxue Olaziregi.
HERRIA > Bergara.
ADINA > 12 urte.
ABESTIA > *Goizero.*



NOIZ > Martxoaren 20an.
ORDUA > 20:15ean.
TALDEA > Goizane Larra-
ñaga, Irati Eguren, Nerea
Mujika eta Uxue Azkarate.
HERRIA > Bergara.
ADINA > 10 urte.
ABESTIA > *Narama.*



NOIZ > Martxoaren 18an.
ORDUA > 20:15ean.
TALDEA > Irati Bretaña,
Leire Zabaleta eta
Nerea Julian.
HERRIA > Bergara.
ADINA > 9 urte.
ABESTIA > *Eskutitza.*



NOIZ > Martxoaren 20an.
ORDUA > 20:15ean.
TALDEA > Aritz Leza, Iker
Kortabarría, Unai Barreiro
eta Urko Arregi.
HERRIA > Oñati.
ADINA > 7 eta 8 urte.
ABESTIA > *Maite zaitut.*



NOIZ > Martxoaren 18an.
ORDUA > 20:15ean.
TALDEA > Jone Urrea, Itziar
Campos, Maddi Elortza.
HERRIA > Bergara.
ADINA > 11 urte.
ABESTIA > *Izar iheskorra.*



NOIZ > Martxoaren 20an.
ORDUA > 20:15ean.
TALDEA > Aitziber Marti-
nez de Alegria, Ane Guridi,
Maddi Guridi eta
Uxue Guridi.
HERRIA > Oñati.
ADINA > 7, 9 eta 10 urte.
ABESTIA > *Deabrutxo
maitea.*



NOIZ > Martxoaren 18an.
ORDUA > 20:15ean.
TALDEA > Amaia Oregi,
Ismene Gorostidi, Itziar
Retes eta Miren Irureta.
HERRIA > Bergara.
ADINA > 9 eta 10 urte.
ABESTIA > *Nirekin.*



NOIZ > Martxoaren 20an.
ORDUA > 20:15ean.
TALDEA > Aitor Arzuaga,
Aritz Zubiagirre, Jokin
Moreno eta Kevin Martin.
HERRIA > Oñati.
ADINA > 9 urte.
ABESTIA > *Aitormena.*



NOIZ > Martxoaren 18an.
ORDUA > 20:15ean.
TALDEA > Ane Larrañaga,
Ibai Sanz, Iñaki Olabarria
eta Irati Polanko.
HERRIA > Bergara.
ADINA > 8 urte.
ABESTIA > *Maite zaitut.*



NOIZ > Martxoaren 20an.
ORDUA > 20:15ean.
TALDEA > Amaia Pol
eta Goreti Abaunz.
HERRIA > Oñati.
ABESTIA > *Laztana.*

ASTE BUKAERA...

Andoni Gartziarekin



AZOKAN Zapatu goizetan azokara joatea gustatzen zaio Andoni Gartzia. Argazkian, zapatuan, barazkiak eta frutak aukeratzen. Jarraian duatloia antolatzeko lanetan ibili zen Garaiaiko gerentea. J. ARANTZABAL

"Zapatuetan, azokan erosketak egin, eta semeekin kiroldegira joaten naiz"

Estresatuta dabilenean kirola egitea gustatzen zaio Oñatiko kirol zinegotzi Andoni Gartzia

Familiarekin egoteko denbora askorik ez duen arren, etxean gosaltzen eta afaltzen du ia egunero

MIREIA BIKUÑA > OÑATI

Andoni Gartzia (Oñati, 1962) Garaia Berrikuntza Guneko gerentea da. Era berean, Udaleko Garapen Ekonomiko, Enplegu eta Merkataritza eta Kirol batzordeetako burua da. Astegunak Garaia eta Udalean ematen ditu.

Hala, aste bukaerak aprobetxatzen ditu familiarekin egoteko. "Zapatuetan eta domeketan familiarekin egiten ditut planak" esan digu Andoni Gartzia, "goizean goiz azokara joaten naiz erosketak egitera, eta ondoren, Ander eta Josu semeak eskola kirolera laguntzen ditut".

Baina, pasa berri den zapatua berezi samarra izan zen, Oñatiko Duatloia jokatu zelako eta. Antolatzaile taldeko kidea da Andoni Gartzia. "Dena ondo joan da. Dagoeneko XVII. aldia bete du lasterketak. Antolatzaile taldeko kidea naiz aspalditik". Parte-hartzaileen lana jarraitu du gertutik, "nik neuk ere duatloian parte hartu izan dut, eta asko gustatzen zait modalitate hori". Berritoki bizikletan hasteko asmoz, lizentzia ateratu duela esan digu, "probaren batean parte hartzeko gogoia dut".

LAGUNEKIN EGOTeko TARTEA

Asteazken zehar denbora gutxi izaten du familiarekin egoteko. "Goizeko zortzietan ingeleseko eskolak hartzen joaten naiz, eta handik, zuzenean, lanera joaten naiz. Eguerdian, normalean, Arrasaten bazkaltzen dut", diosku Andoni Gartzia. Oñatiko Udaleko batzordeetan parte hartu ondoren, lagunekin egoteko tartea hartzea gustatzen zaio. "Arra-

tsaldeko zazpiak aldera plazara joaten naiz semeak hartu eta lagunekin egotera". Zortziak aldera etxera joaten dira afaltzera. "Familiarekin egoteko denbora asko ez izan arren, gosaldia eta afaltzea elkarrekin egiten dugu egunero. Gainera, goizetan nik eroaten ditut bi semeak ikastolara, lanera joan aurretik". Garaia Berrikuntza Guneko kargua, zinegotzi lana eta familia

uztartzeari zaila dela diosku Gartzia, "zorionez nire emazteak ez du lanik egiten, bigarren semea izan genuenetik. Hortaz, bera arduratzen da etxeko kontuetaz. Duda barik, emaztea eta biok bateragarriak gara, eta oraingoz, ondo moldatzen gara".

Pazko Asteazken jai izan arren, Aste Santuko oporrak etxean lasai egoteko aprobetxatuko ditu. Oraingo ez dute planik egin. "Hamar eguneko oporrak ditugu, baina lasai irteerako gara Oñatin; mendira geratzen bat egingo dugu, baina oraingo ez dugu planik".

BIDAIA ASKO LAN KONTUENGATIK

Berrikuntza gune ezberdinak bisitatzeko bidaia asko egiten ditu Andoni Gartzia. Dena dela, familiarekin bidaiatzeko tartea ere izaten du. "Iaz, abuztuan, Oaxacan (Mexiko) egon ginen hiru astez, eta semeek aukera izan zuten hango kultura ezagutzeko eta hondartzetan ibiltzeko", azaldu digu. "Semeengatik balitz, oporrak ditugun bakoitzeko hondartzara joango ginatke, asko gustatzen zaie-eta. Dena dela, niri ez zait hondartza gehiegi gustatzen".

"Estresa kentzeko kirola egiten dut: korrika egin, bizikletan ibili, golfean jokatu..."

Udaletxeko Kirol zinegotzia da Andoni Gartzia, eta oso kirolzalea. "Beti gustatu izan zait kirola egitea. Orain ere, estresatuta nagoenean kirola egiten dut; normalean, korrika egitera joaten naiz". Baina, beste kirol batzuk ere egiten ditu; besteak beste, golfa gustatzen zaio. "Golf zelai batera joan aurretik, 15.000 pilota jaurti behar nituela esan zidan irakasle batek. Hala, zortzi hilabetetan 20.000 bota ondoren joan nintzen lehen aldiz golf zelai batera". Oñatiko Irelor golf zelaian entrenatzeko aukera du. "Kirol polita da, eta zelaia etxetik gertu dudanez... Gainera, emazteak eta semeek ere aukera izan dute golfa ezagutzeko. Hortaz, laurok ibiltzen gara golfean", esan zigun Andoni Gartzia. Irelor golf zelaia eskertu lagun askok ezagutu dute golfa. "Gu, normalean, aste bukaeratan joaten gara golf zelaira, eta lagun asko ibiltzen da. Poliki-poliki hazten doan kirola dela esango nuke".

gazte zerbitzuak

TURISMOA

> Oporraldiak. Aste Santuko egonaldia prestatzeko informazioa dugu Gazte Bulegoan: alojamendua, ibilbideak, planoak, webgunak... pasa zaitetz bulegotik eta lagunduko dizugu atseden tarte hau antolatzen.

BEKAK

> Doktoregoa. Hezkuntza eta Zientzia Ministerioa. Ikertzaileak Prestatzeko laguntzak doktorego-tesi bat egin nahi duten unibertsitateko goi-mailako tituludunentzat. Epea: apirilak 1.

> Diru-laguntzak. Gipuzkoako Foru Aldundia. Gizarte Politikako Departamentua. Haur, Nerabe eta Gazteen arloan proiektuak egiteko 2007ko diru-laguntzak abian dira. Informazio gehiago: 900 11 01 11 (arratsaldez, aholkularitza).

LEHIAKETAK

> Gomendatzen dizut. Merezi du!"2008. Gipuzkoako hainbat Gazte Informazio Bulegok parte hartzen dute. Informazio gehiago www.aizue.com blogean. Epea: irailak 30.

> Argazkigintza. Hondarribiko Udala. Aste Santuko VII. argazki lehiaketa. Epea: apirilak 15.

LANA

> Marketin arduradunak. Euskarazko Komunikazio Taldea. Euskarazko Komunikazio Taldeak arduradunak behar ditu marketin eta kudeaketa sailtarako. Epea: martxoak 19.

> Teknikariak. Urola Kostako Mankomunitatea. Enpresendako zerbitzuak emango dizkien teknikariak aukeratzeko lan poltsa deialdia. Epea: martxoak 31.

> Begiraleak. Ekin Bi S.L. Aisialdia udaran Oreretan egingo diren udalekuetarako begirale bila dabil. Epea: apirilak 18.



ARRASATEKO GAZTE BULEGOA:

Biteri etorbidea 3 • 943 77 00 65
gaztebulegoa@arrasate-mondragon.net

BERGARAKO GAZTEENDAKO INFORMAZIO GUNEA:

Kultura etxea • 943 77 91 57
gzerbitzua@euskalnet.net

OÑATI GAZTEENDAKO INFORMAZIO GUNEA:

Foruen plaza 4 • 943 71 82 57
gazteinformazioa@oinati.net

1/ ETXEBIZITZAK

101. SALDU

Antzuola. Sagasti auzoan etxea salgai. 90 m². Hiru logela, bi bainugela, sukalde-egongela handia, bi balkoi eta despentsa. Garajearekin. Erdi jantzita. 617 00 37 30 edo 943 78 71 35.

Aretxabaleta. Erdigunean teitatupeko 72 metro koadroko etxebizitza salgai. Jantzita. 16 metro koadroko garajea. Prezio interesgarria. Presazkoa da saltea. 659 64 67 38.

Arrasate. 117 metro koadroko etxebizitza salgai Zerrajeran. Lau logela, bi komun, sukalde eta egongela. Garaje eta guzti. 650 10 02 10 edo 943 79 96 63.

Arrasate. 47 metro koadroko apartamentua salgai. Erdialdean. Berritua eta jantzita. Argitsua eta material ederrekin egina. 635 70 88 88.

Arrasate. 61 m²-ko etxebizitza berritua salgai San Andresen. Bi logela, sukalde, egongela, komun bat eta terraza. 12 m²-ko sotoa ere badauka. Igogailu berritua. Sartzeko prest. 256.050 euro. 669 14 67 92.

Arrasate. Erdialdean 94 metro koadroko etxebizitza. Hiru logela, sukalde, bi komun eta egongela. Igogailua eta berogailua. Garajea aukeran. Eraikin berria. 686 24 97 48.

Arrasate. San Andres auzoan etxebizitza salgai. 58 metro koadro. Bi logela, egongela, sukalde, komuna eta trasteleku. Berritua. 210.350 euro. 943 27 71 50.

Bergara. Barrenkalea kalean. 40 m². Bi logela, komuna eta sukalde amerikarra. 627 90 68 91 edo 627 53 55 54.

Bergara. Erdialdean, hegoaldera begira. Hiru logela eta bi bainugela. Hirugarren solairua, igogailuarekin. Garajea aukeran. Erdi berria: 16 urte. 339.500 euro + 28.850 euro www.euskalnet.net/a/guirre. 630 60 47 75.

Bergara. Koldo Eleizalde kalean 97 metro koadroko etxea salgai. Hiru logela, bi komun, sukalde eta egongela. Eguzkitsua eta bista oso onak. Garajea eta trasteleku. 655 71 03 23.

Bergara. Zabalotegin etxea salgai. Hiru logela, egongela, sukalde eta bainugela. 653 70 84 04.

Eskoriatza. Baserrira salgai. Bitan banatua dago eta alde bat dago salgai. 250 metro koadro. 11.000 metro koadroko lursailarekin eta 500 metro koadroko lorategiarekin. Oso eguzkitsua. Berria. 420.708 euro. 647 64 02 81.

Legazpi. 52 metro koadroko etxebizitza berria. 50 metro koadroko terraza, sukalde-egongela, bi logela, bi komun eta hari musikala. 660 84 51 78.

Lizarra. Hiru solairuko txalet adosatua salgai. 210.350 euro. 675 71 07 24.

Oñati. 75 metro koadro. Hiru logela, egongela-jangela, sukalde berritua, trasteleku eta estudioa egiteko moduko bi ganbara. Oso argitsua. Prezioa negoziatu daiteke. 629 93 87 01.

Oñati. Bidebarrieta kalean etxea salgai. Hiru logela, bi komun, egongela, sukalde eta terraza handia. 665 74 98 47.

IRAGARKI SAILKATUAK

Egubakoitz eguerdia arte (12:00) jasotako iragarriak bakarrik iragarriko ditugu.

943 25 05 05
sailkatuak@goiena.com

<http://www.goiena.net/sailkatuak>

PARTIKULARREN IRAGARKIAK DOAN JARRIKO DITUGU. GAINERAKOAK, 22 EURO (+BEZ) ORDAINDU BEHARKO DITUZUE MODULUKO. PREZIO BEREZIA: EGUBAKOITZETAKO ETA ASTELEHENEKO GOIENKARIAN BIETAN, ARGITARATUZ GERO 30 EURO (+BEZ). GOIENKARIAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

OÑATI

Sukaldaria behar da. Ordutegi eta baldintza onak.
943 27 61 07
943 42 30 07

Oñati. Diseinuko duplexa salgai. 120 metro koadro Kale Zaharrean. Argitsua eta material ederrekin eginda. Hiru logela, bi komun, sukalde, egongela eta estudioa. 676 39 36 93.

Oñati. Duplexa salgai erdialdean. 105 m². Lau logela, bi komun, egongela eta sukalde. 635 71 41 39.

Oñati. Erdigunean eraikitzen ari den etxebizitza. 105 metro koadro. Hiru logela, bi komun, 40 metro koadroko egongela-jangela, sukalde eta trasteleku. Aukera paregabea, prezio onean. 651 70 80 04.

Oñati. Zubibarri kalean eraikitzen ari diren etxean duplexa salgai 1. eta 2. solairuak. Hiru logela, bi bainugela, sukalde, egongela handia, garajea eta trasteleku. Dena igogailuarekin lotuta. Eguzki energia termikoa. 670 85 85 41.

Oñati. Zubillaga auzoan etxebizitza salgai. 79m². Hiru logela, sukalde, sala, komuna eta ganbara guztiz eraberritua. 39 milioi, negoziagarria. 635 71 41 39.

Soraluze. Hiru logela, bi komun eta trasteleku dituen etxebizitza salgai. Sukalde-jangela eta egongela, dena bat da. Lau balkoi eta terraza dauka eta arropa barruan eskegitzeko aukera. 258.435 euro, negoziagarria. 616 17 94 01.

103. ERRENTAN EMAN

Bergara. 100 metro koadroko etxebizitza Bolun. Guztiz jantzita. Hiru logela, bi komun, sukalde-jangela, egongela, sarrera eta trasteleku. 607 41 14 44.

Hendaia. Uztaile eta abuzturako apartamentua errentan. Erresidentzia batean kokatua, igeurlekuarekin eta parking pribatuarekin. Hondartzatik gertu. Inaxio. 670 41 08 58.

Torremolinos (Malaga). Aste Santuan eta Bergarako jaietan apartamentua emango nuke errentan. Bi logela, eta guztiz

ARAMAIO

Zerbitzaria behar da asteburuetarako.
690 85 52 25

jantzita. Hondartzatik 150 metrora. Prezio onean. 657 01 18 16.

104. ERRENTAN HARTU

Arrasate. Emakume arduratsua batek logela behar du. Presazkoa da. Hobe erdigunean bada. 666 21 88 95.

Bergara. Etxea errentan hartuko nuke Bergaran. 665 75 52 11.

Debagoiena edo Soraluze. Etxebizitza errentan hartuko nuke. 617 88 20 93.

105. ETXEAK OSATU

Bergara. Gela ematen da errentan, sukalde erabiltzeko esku-bidearekin. Bolun. 260 euro. 670 85 86 68.

Gazte langilea logela bila Arrasaten edo inguruan. 630 43 72 96.

Logela daukat alokatzeko. Neska bada, hobeto. 696 53 36 44.

2/ GARAJEAK

201. SALDU

Aretxabaleta. Garajea salgai Loramendin. 10.000 euro. 656 77 64 64.

Arrasate. Garajea salgai Jauregi-barria kalean. 943 08 29 81.

Oñati. Bidebarrieta kalean. 695 75 85 26.

203. ERRENTAN EMAN

Aretxabaleta. Garaje itxia ematen dut errentan. Andramari auzunean dago. 943 77 12 81.

3/ LOKALAK

301. SALDU

Arrasate. Lokala salgai Anbotu

ARRASATE

Muxibar tabernak zerbitzaria behar du.
943 79 11 25

kalean. 61 metro koadro. 656 73 34 84 edo 945 44 50 15.

303. ERRENTAN EMAN

Bergara. 80 metro koadroko lokala ematen dut errentan. Berriztatuta. 450 euro hilero. 645 00 80 55.

304. ERRENTAN HARTU

Bergara. Bergaran taberna bat hartuko nuke errentan. Jantzita egon behar du. 697 20 78 24.

Bergara. Taberna edo jatetxea errentan hartuko nuke. 665 75 52 11.

4/ LANA

401. ESKAINTZAK

Arrasate. Emakumea behar dugu umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. 696 79 43 89.

402. ESKAERAK

Bergara. Emakume bat gertu umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketa lanak orduka egiteko. 606 64 16 09.

Bergara. Emakume gaztea gertu haurrak edo pertsona nagusiak zaindu, etxeko lanak egin eta abarreak. Paperak daukat. Mila. 688 64 11 34.

Bergaran umeak edo nagusiak zaintzeko gertu dagoen emakumea naiz. Horrez gain, garbiketa lanak ere egingo nituzke. 606 64 16 09.

Debagoiena. Baserrietan mantentze-lanak egin edo baso, pinudi eta lursailak garbitzen lan egingo nuke. 678 88 05 64 edo 678 53 82 11.

Debagoiena. Emakume esperimentaduna gertu umeak zaindu edo garbitasun lanak egiteko: etxeak, tabernak, bulegoak... 696 11 01 94.

Emakumea edozein lan egiteko prest. Batez ere garbiketan eta nagusiak zaintzen. 666 21 88 95.

Margolari edo iturgin laguntzaile lanetan aritzeko lan bila nabil. 610 82 02 17.

Ostalaritzan lan egingo nuke sukaldari edo zerbitzari. Baita nagusiak zaintzen ere. Berehalanean hasteko prest. 666 75 73 21.

Sukaldaria eskaintzen da lan egiteko. 677 64 84 82.

6/ MOTORRA

601. SALDU

BMW 325Ci. 146.000 km. 16.000 euro. 606 24 21 21.

Citroen ZX 1.9i Volcan autoa salgai. 130 ZP. ABS, direkzio lagundua, kristal-igogailu elektronikoa, aire girotua eta itxitura zentralizatu. 900 euro. 686 91 45 37.

Daevo. Hiru ate. Egoera onean. 3.000 euro. 688 62 98 03.

Ford Escort familiarra. 11 urte. 212.000 km. Motorra egoera onean. 350 euro. 628 05 97 94.

Golf GTI Serie II salgai. 1990ekoa. 165.000 km. Egoera onean. 1.200 euro. 653 71 44 31.

Honda CBF 250 motorra salgai. 7.000 km. 2006koa. Garantia ofiziala. 2.400 euro. 686 67 17 38.

Karabana salgai. Zazpi metrokoa. Kalefakzioa eta ur berogailua, komuna, dutxa eta sukalde osoa kanpoan, Mutrikuko Santa Elena kanporean jarrita. 652 75 03 61.

Mercedes Vito. 2001ekoa. 157.000 km. ohea, hozkailua, gortinak... 12.000 euro. 626 89 15 94.

Opel Vectra autoa salgai. Egoera onean. 2.400 euro, negoziatzeko prest. 658 73 40 21.

Peugeot 106 XT autoa salgai. 649 32 92 94.

Volkswagen Multivan Sincro furgoneta. 4x4. Estraaskorekin: toloa, hozkailua, jatorrizko GPSa... 2001ekoa. 652 75 34 37.

Yamaha 426 motorra salgai. 2001ekoa. Egoera onean dago. 2.000 euro. Deitu telefono honetara: 615 00 84 49.

Yamaha Aerox Ultimate 49 cc-ko motorra salgai. Beltza eta gorria da. Egoera onean. 606 08 09 17.

8/ DENETARIK

801. SALDU

'Carcher'-a salgai. Aurrealdeak garbitzeko makina da. HD1050B modelo, pistolarekin. Egoera bikainean dago. 616 35 99 75 edo 943 76 33 01.

Administrazio laguntzaile lanposturako oposizioak prestatzeko apunteak salgai. Gai guztiak eta testak egiteko CDA. 2008koak. 636 05 36 18.

Autoan umeak eramateko segurtasun aukila salgai. 656 78 64 64.

Garajeak auzotar salgai. Prezio bikainean. Neurriak: 3,16x3 m. Gainea: 0,50m. Automatismoa jartzeko prest. Fabrikatzailea: Puertas Nueva Castilla. 605 75 96 11.

Jaunartza egiteko marradun alondora eta jaka urdin iluna salgai. 656 78 64 64.

Karrodenda salgai. Alpen-Kreuzer. Sukalde-denda independentearekin. Bi logela bikoitz, mahai-jantokia 4-6 persona-erentzako, abantzea eguzkitarako biserarekin eta sukalde. Ondo zainduta eta egoera onean, beti garajea gordeta. 1.800 euro. 615 72 47 43.

Konpresorea salgai. Sagola markakoa. Pistola ekologikoarekin. Oso egoera onean. 616 35 99 75 edo 943 76 33 01.

Mahaiabaldua salgai. Neurria: 1,36x92. Luzagarriekin. Asier. 617 15 88.

Tabernako tresneria. Hamar bandejakoa labea, 36 diametro-dun xafiakakoa ebakitzailerako, Fagor garbigailua eta mahai eta aukilak saltzen ditut. 649 84 67 09.

Teleskopioa daukat salgai. Astrolon markakoa. 402 potentzia. 656 78 64 64.

802. EROSI

Eskusoinua Eskusoinua erosi nuke; tamaina txikiakoa, botoiduna eta kromatikoa. 943 76 09 28.

804. HARTU

Hozkailu zahar bat hartuko nuke. 943 79 66 00.

806. GALDU

Bergara. Ezkontzako urre koloreko eraztuna galdu nuen. Gizon izena eta 99-09-25 data du idatzita. 627 64 91 58.

Jantzi polar beltza galdu nuen Udaltza mendian urtarri bukeran. Autoko giltzak bertan ditut. 943 78 21 59.

Txamarra galdu zuen umeak, martxoaren 8an, Arrasaten. Iturripe inguruan. Beltza da. 8 neurrikoa. 695 72 84 75.

Antzuola. Behoko auzoan katua galdu dut. Martxoaren 14an. 658 72 11 49.

Martxoak 17a:
166. zozketa

ASTELEHENEKO GOIENKARIA

Harpidedunen

txokoa

Zorionak irabazleoi!

Gaur, martxoak 17, egin den zozketako saridunak azpiko zerrendan datoz. Zu tartean bazaude, zorionak!

ASTELEHENEKO GOIENKARIAko harpidedun bazara, adi:

Zeuren izen zaitzake hurrengo zozketako irabazleetako bat!

Saridunak

SKUN FUNK markako 2 kamiseta eta 2 poltsa
- ARITZ BEISTEGI UGARTE (Bergara)
- MIGUEL ANGEL LASAGABASTER BENGOA (Oñati)

Sariak jasotzeko epea: 15 egun

167. zozketako saria (Martxoak 31)

'Markak Gernika 1937'
Bernardo Atxagaren
azken liburuaren ale bat.

Harpidedun ez bazara...

Harpidedun egiteko:

943 08 10 50

09:00etatik 18:00etara.

Harpidetza kuota:

38 euro

2008ko urteko kuota

Goienkaria
astelehenean, aste bukaera osoa

astea GOITBn

Astelehena, 17



> Erreportajea, Arrasateko atentatua 22:00

M-7: Arrasate hunkitu zuen eguna izenburupean, Isaias Carrascoren atentatuaren gaineko erreportajea eskainiko du Goiena Telebistak.

- 13:15 Emisio hasiera.
- 13:20 Marrazki bizidunak: Calimero.
- 13:45 Gaurkoak.
- 13:47 Erreportajea: Ttipi Ttapa.
- 14:15 Eltze beroa.
- 14:45 Berriak.
- 15:15 Ilunpean.
- 15:45 Gaurkoak.
- 15:47 Berbaire.
- 16:15 Berbaire.
- 16:45 Berriak.
- 17:15 Calimero.
- 17:45 Gaurkoak.
- 17:47 Ikusmira.
- 18:15 Ikusten.
- 18:45 Berriak.
- 19:15 Gertutik.
- 19:45 Berriak.
- 20:15 Marrazki bizidunak: Calimero.
- 20:45 Berriak.
- 21:15 Bertsoak.
- 22:00 Erreportajea.
- 22:45 Berriak.
- 23:15 Jazz gauak.
- 22:45 Gaurkoak.
- 23:30 28 Klipa.
- 00:15 Emisio amaiera.

Martitzena, 18



> 'Kantari'-ko beste saio bat ikusgai 20:15

Martitzenean Kantari saioan, Bergarako sei talde arituko dira eta eguenean berriz, Oñatiko lau. Kantariko saioen bigarren buelta da.

- 13:15 Emisio hasiera.
- 13:20 Marrazki bizidunak: Horry.
- 13:45 Gaurkoak.
- 13:47 Erreportajea.
- 14:15 Harmailatik.
- 14:45 Berriak.
- 15:15 Gertutik.
- 15:45 Gaurkoak.
- 15:47 Kirolari.
- 16:15 Eltze beroa.
- 16:45 Berriak.
- 17:15 Horry.
- 17:45 Gaurkoak.
- 17:47 28 Klipa.
- 18:15 Musikantoi.
- 18:45 Berriak.
- 19:15 Marrazki bizidunak: Horry.
- 19:45 Berriak.
- 20:15 Kantari.
- 20:45 Berriak.
- 21:15 Teknopolis.
- 21:45 Gaurkoak.
- 21:47 Ikusten.
- 22:15 Animaliak.
- 22:45 Berriak.
- 23:15 Ikusmira.
- 22:45 Gaurkoak.
- 23:30 Erreportajea.
- 00:15 Emisio amaiera.

Eguaztena, 19



> 'Euskal Artzainak Ameriketara' 21:15

Fresnoko Sante Fe hotela bisitatu dugu Ttipi Ttapa telebistak AEBko euskal artzainei buruz ekoiztako erreportajearen barruan.

- 08:00 Emisio hasiera.
- 08:05 Marrazki bizidunak: Horry, Calimero, Kantari eta Trikitraka trikitron.
- 11:00 Ikusmira.
- 11:30 Ikusten.
- 12:00 28 Klip.
- 12:30 Bertsoak.
- 13:00 Erreportajea.
- 14:00 Bertsoak.
- 14:45 Eltze beroa.
- 15:00 Kantari.
- 16:00 Marrazki bizidunak.
- 19:00 Hitz bitan.
- 19:30 Klip@.
- 20:00 Ur eta lur.
- 20:30 Teknopolis.
- 21:00 Euskal artzainak.
- 21:45 Euskal Artzainak.
- 22:15 Aratusteetako kontzertua.
- 23:00 Musikantoi.
- 23:30 Jazmina.
- 00:00 Emisio amaiera.

Eguena, 20



> Lendaris Muertos taldea kontzertuan 22:15

Lendaris Muertos taldeak Madrilen eta Barzelonan eskainitako kontzertuak eskainiko dituzte eguenean Musikantoi saioan.

- 08:00 Emisio hasiera.
- 08:05 Marrazki bizidunak: Calimero, Horry eta Trikitraka trikitron.
- 11:00 Kantari.
- 12:00 Ur eta lur.
- 12:30 Teknopolis.
- 13:00 Euskal artzainak.
- 13:30 Jazmina.
- 14:00 Ilunpean.
- 14:30 Erreportajea.
- 15:00 Eltze beroa.
- 15:30 Erreportajea.
- 16:00 Aratusteetako kontzertua.
- 17:00 Marrazki bizidunak.
- 20:00 Ur eta lur.
- 20:30 Erreportajea Ttipi Ttapa.
- 21:00 Bertsoak.
- 22:15 Musikantoi.
- 23:00 Musikantoi.
- 23:15 Jazz gauak.
- 00:30 Emisio amaiera.

Egubakoitza, 21



> Beterri bertso txapelketa 21:45

Amasan, Andoainen eta Asteasun egin da Beterriko lehenengo bertso txapelketa, eta aste honetan, Andoainen egindako saioa eskainiko dizuegu.

- 08:00 Emisio hasiera.
- 08:05 Marrazki bizidunak: Calimero, Horry eta Trikitraka trikitron.
- 11:00 Kantari.
- 12:00 Bidegileak.
- 12:30 Eltze beroa.
- 13:30 Euskaldunak Ameriketara.
- 14:00 Erreportajea.
- 14:30 Erreportajea.
- 15:15 28 klip.
- 15:30 Kantari.
- 14:00 Marrazki bizidunak.
- 19:00 Ikusten.
- 19:30 Ikusmira.
- 20:00 Teknopolis.
- 20:30 Hondartzako motxila.
- 21:00 Animalia.
- 21:30 Erreportajea.
- 22:45 Bertsoak.
- 22:45 Musikantoi.
- 23:15 Jazz gauak.
- 00:30 Emisio amaiera.

arrasate irratia

FM 107.7

> Ohiko programaziorik ez du eskainiko 10:30

Datorren astelehenetik Pazko aстера bitartean, Arrasate Irratiak ez du ohiko programazioa eskainiko. Horren ordez, elkarriketek hartuko dute tokia Arrasate Irratian, Pazko aste martitzenara arte.

Zapatua

10:00 Asteko gainbegiratua. Ilunpeansaioan, Exkixu taldeko Alex Sardui; musika kontuak, Kantaka saioan; hirugarren adinekoen gainekoak (dieta kontuak, besteak beste) Zaharrek berrisaioan, eta beste.


Domeka

10:00 Asteko gainbegiratua.

Astelehenetik eguaztenean

10:00-12:00 Igo Autobusera Albistegia Eguraldiaren iragarpena (Joxe Landa) Ilunpean Teknoberriak Igo Euriborrera! Kantaka Zaharrek Berri Astearen errepaso Zozketak Zorion agurrak (parte hartzeko: 943 25 05 05 (irratia@goiena.com)) 11:55 Arrasateko albisteak, labur. 12:05 Euskadi Irratiko albistegia. 12:10 Izarren ordua: abesti ezagunak. 13:00 Euskadi Irratiko albistegia. 14:00 Igo Autobusera! (errep.) 17:00, 19:00, 21:00, 23:00 albistegi laburra.

gertutik



ALBERTO ELOSEGI

Saroi Jauregi Aurrezlea eta gai jartzailea

"Aitak loarazteko bertso zaharrak abesten zizkigun"

MIREN ARREGI > ARRASATE

Saroi Jauregi Zaldibian jaio zen 1978an. Euskal Filologian lizentziaduna, hizkuntza zuzentzailea da Elhuyar fundazioan. Horretaz gain, bertsoa protagonista duen EITBko *Hitzetik Hortzera* saioko aurrezlea da eta baita bertsoaritzako gai jartzailea ere.

Bertsolaritza txikitatik gustatu izan zaizu?

Etzetik jaso dut bertsozaleasuna, eta txiki txikitatik gustatu izan zaizkit bertsoak. Aita da oso bertsozalea eta berak beti esaten du loarazteko bertso zaharrak kantatzen zizkigula. Geroztik, beti bizi izan dut bertsozaleasuna etxean.

Bertso alorrean eskua sartzea kostatu egin zitzaizun?

Egia esan bilatu gabe etorri zen. Ni bertso eskolan ibili nintzen. 1993an Zaldibian bertsolari gazteentzako saio batzuk antolatu ziren eta orduan, bertso eskolan genbiltzan gaztetxoek aurrezko genituen saio haiek. Geroztik, herri txikitik pasatzen den moduan, ekitaldi bat zegoenean, baten edo besten aurrezko izan nituen eta gero gaiak ere ipintzen hasi nintzen, betiere herri mailan. 1999an Gipuzkoan herri arteko txapelketa jokatu zen, eta Zaldibiako taldearen gai jartzailea bezala aukeratu ninduten. Gero etorri zitzaidan proposamena txapelketa horretan aurrezko jarraitzeko, eta azkenean finala aurrezko iritsi nintzen.

Gai jartzailea zara. Zuk proposatzen dituzu gaiak?

Normalean txapelketatik kanpo saioetan bakarrikakoa da, norberak proposatzen ditu gaiak. Txapelketan berriz, talde bat osatzen da eta talde lana da. Bakoitzak bere gaiak proposatzen ditu eta ondoren taldean erabakitzen dira gaiak.

Gai bat edo beste ipini, asko baldintzatzen du bertso saioaren nondik norakoa?

Kezka handia sortzen da, erantzukizun bat badaukagu. Batzutan gai oso ona ipini duzula iruditzen zaizu, baina igual ez duzu asmatu, edo bertsolariak egun horretan ez du behar bezalako gorputza gai horri erantzuteko. Alderantziz gertatzen denean, harrotasun puntu bat sentitzen da.

asteko hitzorduak

Erakusketa



BERGARA

> Cele Otañoren erakusketa osatuena ikusteko aukera dago Aroztegin

Cele Otaño (1912-2003) Bergaran hilobiratu dagoen artistaren lanak ikusteko aukera dago Aroztegi aretoan. Karikaturak, margolanak, grabatuak... batzen ditu erakusketak. Martxoaren 30era arte dago zabalik, egunero.

Lehiaketa



BERGARA

> Mendekoste jaiak iragartzeko kartel lehiaketa deitu dute

Bergaran bizi edo erroldatutako edozeinek parte har dezake Udalak deitutako kartel lehiaketan. Pentekoste jaiak 2008 Bergara da derrigorrezko testua. 600 euroko saria emango dute. Argibideak: www.bergara.net.

Zinema



ELGETA

> 'Clerks 2' filma emango dute etzi, eguaztena, Espaloia antzokian

Etzi, eguaztena, 21:30ean, Clerks 2 filma emango dute. Kevin Smith-ek zuzendutako film horretako protagonistak Dante eta Randall dira. Mooby's izeneko otordu bizkorren jatetxe kate baten lanean hasten dira.

kuxkuxeroa



Goiatz Arana

Erromes joan
naiz ni ere
aste bukaeran

Hala da, bai. Zapatuan, bakearen alde egindako ibilbideari buruzko albisteak idaztea egokitu zitzaidan, eta Oñatitik Arantzazurako bidea osatu nuen nik ere. Txandala, kirol-jertsea eta trekkingeko zapatilak jantzi, hamaiketako eta ura motxilan sartu, eta martxa! Eta goiz polita pasa nuen, aizu! Jende andana baino apur bat aurrerago joan nintzen: tarteka, bozgorailuetatik esaten zirenak entzun eta koadernoan ohar batzuk jasoz; hurrena, nire pentsamenduetan murgilduta; eta,

"Jende andana baino apur bat aurrerago joan nintzen, eta goiz ederra pasa nuen!"

ondoren, paisaiak gozatuz. Ibilaldiak iraun zuen bitartean, eguzki goxoa eta haize ederra. Ez dago gaizki.

Elizara gero eta jende gutxiago joaten dela baina... Elizbarrutiak zaturako antolatutako ekimenean, bazen, bada, jendea! Gipuzkoa osoko jendea zegoen: goierriarrak ikusi nituen, baita debagoiendar batzuk ezagutu ere. Arantzazun zen **Lourdes Idoiaga** Oñatiko alkatea, eta **Juan Kruz Mendizabal** Bergarako Santa Marinako parrokoa ere ikusi nuen.

Aurtengoa **Joan Mari Uriarteren** azken homilia izan dela esan zuten ETBn. Prentsa arduradunak ez dit niri informazio hori baieztatu. 75 urte dituela, eta aurren, ibilbidearen zatirik handiena autoz egin duela dakit nik.

asteburuko albuma

Andere Arriolabengoa ere finale-ra. Arabako Bertsolari Txapelketako bigarren finalerdia jokatu zen atzo Aramaion. Bete egin zen kultura etxea eta giro polita egon zen. Ruben Sanchez, Zigor Enbeita, Joan Mari Juaristi, Rikardo Gonzalez de Durana, Andere Arriolabengoa eta Iker Agirrek jardun zuten bertsoan, azken biak aramaioarrak. Lierni Altunak egin zituen gai jartzaila lanak; herri-tarra hori ere. Andere Arriolabengoak egin zuen saiorik onena: ondo eta seguru kantatu zuen. Finalerako txartela lortu du, beraz, Manex Agirre-ekin batera; Zigor Enbeita, Asier Otamendi, Oihane Perea eta Iñaki Viñaspre izango dira beste lauak. Apirilaren 5ean jokatu da finala, 17:00etan, Gasteizko Principalen.



Elias Ibarondo omendu dute. Oñatiko Udal Musika Bandak Aitaren Eguneko kontzertua eman zuen atzo Santa Ana aretoan, eta errezitaldia Elias Ibarondori eskaini zioten. Modu horretan omendu zuen taldeak denbora luzez bandakide izan duen klarinete jolea; 82 urterekin, erretiratzea erabaki du.



Baserriaren heriotza-antzezpena. Bergarako Erramu Zapatuko feria egunean, AHTren kontra protesta egiteko aprobetxatu zuten hainbat lagunek, baserriaren heriotza simulatuz: baserria hilkutxan sartu eta haren aldeko hiletan elizkizuna egin zuten, AHTk ondare horrekin bukatuko duela salatzen.



Metal Xtreme festa. Arrasateko gaztetxean egin zen jaialdia zapatuan. Kontzertua eman zuten Kordobako Cerambyx (grind core), Vigoko Dantalion eta Bilboko Omendark (black metal), Amurrioko Lupulo (trash metal) eta Arrasateko Denialek (death metal). Musika "ilunarekin" gozatu egin zuten entzuleek.



ESKELAK

GOIENKARIAn eskela jarri nahi baduzu, deitu telefono honetara eguen eguerdia baino lehen:

943 25 05 05

Edo zator ordezkaritza batera, eguazten eguerdia baino lehen:

Arrasate Goiena: Otolara lizentziaduna 31. 943 25 05 05 / Goiena: Nafarroa etorbidea 2. 943 25 05 05. **Bergara** Goiena: Barrenkalea 33. 943 25 05 05. **Oñati** Biklon publizitate agentzia: Olakua 9. 943 78 10 65 **Arebaleta**: Goiena: Durana 11. 943 79 86 21. **Aramaio**: Kintelena janari denda: Nardeaga 11. 945 44 50 22. **Elgeta**: Ugari janari denda: Andra Mari plaza 2. 943 76 80 98. **Antzuola**: Itzar liburu denda: Kalebarren 1. 943 76 60 62.

Eskelaren prezioa: 100 euro. Asteleheneko Goienkariako harpidedunak: 90 euro. Prezio berezia: egubakoitzeko eta asteleheneko GOIENKARIAn, bietan, argitaratuz gero, **120 euro.** Asteleheneko Goienkariako harpidedunak: 110 euro.

Goienkaria: astero, 50.000 irakurle Gipuzkoan (CIES).



Doke txapelketak. 9-14 urte bitarteko neska-mutikoei jokatu zuten dokean atzo, Arrasateko Monterron azpiko zelaietan. Egubakoitz Santuan, bestalde, elkarte gastronomikoen arteko txapelketa jokatu da, toki berean, 10:00etan hasita. Lehiaketa horretan irabazten duen bikoteak Udaleko ordezkariek osatutako bikotearen kontra jokatu du ondoren, eta galtzen duenak ordaindu beharko ditu lehiakideen artean banatu diren sardina erreak eta ardoa.


Garai batean, Oñatiko kondeak bere mende zituen orain Arrasatekoak diren hainbat lur (Zaldibar), eta askotan entzun dugu Arrasateko doke jokoan irabazi zituela lur horiek. Baina hori mitoa da; historiak jasotzen duenez, Arrasate erre egin zuten 1448an, eta horren ordainetan eman zizkion Oñatik Arrasateri Zaldibarko lurak.

Beraz, dokea da gure arbasoen antzinako joko; bai, behintzat, gure ibarrean. Leintz Gatzagan, oraindik ere, egiten dute antzerako joko bat, *lauko* izenekoa; San Martin basilizan, uztailko lehen domekan.

zorion agurrak



ARRASATE
Andere Errasti
Martxoaren 11n, 21 urte.
Zorionak wapi! eta ondo ibili Florentzian.



OÑATI
Olatz Azkarate eta Ainhoa Anduaga Zorionak bikote!
Ondo ondo pasau zuen 17. urtebetetzian, merezi dozuela. Kuadrillakuen partetik.



ARRASATE
Jose Luis Aranburu
Zorionak aitiba!
Ondo pasa dezazula zure urtebetetze eguna Eritz, Jokin, Ainhitz eta familia-ko beste guztion partez.



ARRASATE
Nerea Sanchez
Zorionak politxo!!!!
Ondo ondo pasau ta patxo handi bat!



OÑATI
Marta Leturia
Zorionak Marti!
Ondo pasa eguna!
Segi horrela zure irribarre horrekin!!



ARRASATE
Xabi Urtzelai
Zorionak, Xabi! A, eta kontuz mikro inalanbrikuekin.



BERGARA
Jasone Zabala
Martxoaren 14an, 29 urte. Guraso, ahizpa, amama, lkerren eta lankide-en partetik zorionak.



ARRASATE
Jon Berezibar
Zorionak! Urteak aurrera egin arren, Rocky beti gurekin.



ARRASATE
Eritz Iparragirre Aranburu
Zorionak Eritz, zure zortzigarren urtebetetzean! Ondo pasa ostiralean.



BERGARA
Olatz Olañeta
Martxoaren 17an, 8 urte. Zorionak eta parxo handi bat gurasoen eta Aitorren partetik.



LEINTZ GATZAGA
Matilde Arrese Aranburuzabala
Aupa amama! 90 urte betetzen dituzu. Horrela jarraitu, hain jator eta maiztagarri.



ARRASATE
Mery May
Martxoaren 14an, 19 urte! Zorionak loki ta ondo pasau eguna! Patxo handi bat Marixabelarren partez!



ARRASATE
Naroa Ezpeleta Larrañaga
Martxoaren 15ean bi urte. Zorionak eta patxo handi bat sorgintxo! Madrilgo osaba-izeben partez.



ARETXABALETA
Urko Egia
Martxoaren 15ean, 3 urte. Zorionak eta patxo handi-handi bat etxeko guztien partetik.



ARETXABALETA
Iker Seijo Fernandez
Martxoaren 16an, 4 urte. Zorionak eta patxo handi bat etxeko guztien partetik.



DEBAGOIENA
Jesus Mari Goñi
Martxoaren 16an. Zorionak aitia! Familiako partetik!



ARRASATE
Lide Ezpeleta Sanpedro
Martxoaren 16an 3 urte beteko dituen puxikari zorionak aitaok, amatxok eta Intzak.



ANTZUOLA
Jone Garitano
Martxoaren 17an, 4 urte. Zorionak eta patxo bat aitaok eta amatxoren partetik.



ARETXABALETA
Iratxe Bengoa
Zorionak Ira!
Ondo pasa eguna!
Zure patata tortila jateko desiatzen gaude.



BERGARA
Aitor Esnaola
Martxoaren 17an, 7 urte. Zorionak eta patxo handi-handi bat, etxeko partetik.



ARRASATE
Maren Carmen Joosten
Martxoaren 17an, 3 urte. Zorionak eta patxo handi bat etxeko partetik!



ARETXABALETA
Jon Otxandategi
Martxoaren 18an Zorionak zure ume-txoeren partetik eta ondo-ondo pasa!

jaiotakoak



Gorka Borobia Zafra
Bergara > 4,150 kilo. Martxoaren 12an. Gurasoak: Nuria (Bilbo) eta Jose Antonio (Bergara). Argazkian, amarekin.



June Ugarte Olabarrieta
Arrasate > 3,350 kilo. Martxoaren 12an. Gurasoak: Libe (Arrasate) eta Jon (Arrasate). Argazkian, June lotan.



Sara Zabaleta Igartua
Bergara > 3,700 kilo. Martxoaren 12an. Gurasoak: Marta (Bergara) eta Joseba (Bergara). Argazkian, Sara lotan.



Janire Sanz Olaizola
Aramaio > 2,500 kilo. Martxoaren 12an. Gurasoak: Noemi (Aramaio) eta Paul (Bergara). Argazkian, amama Maite eta osaba Josurekin.

BABESLEA

IKUSI MAKUSI

Umeen paradisia

Lazarraga 4 OÑATI 943 08 23 32

Karmele Jaio > Emakundeko prentsa arduraduna

"Telebistaz jarraitzen dut Baskonia taldea"

IKER BARANDIARAN > ARRASATE
Gasteizko Karmele Jaio kazetari lanak egin ditu denbora luzean. Gara-n eta Elkar Fundazioan lan egin zuen iraganean, eta azken urteotan Emakundeko prentsa arduraduna da. Horrez gain, hainbat liburu argitaratu ditu.

Ama moduan esku ona daukazu? Julenekin ondo moldatzen zara?

(Barre) Bai. Zer esango dizut nik? Ama izan aurretik uste nuen ezetz, baina gero esku agertu egin zen. Julenek urtebete egin zuen martxoaren 8an, hain justu. Lehen ere hori egun garrantzitsua zen niretzat, baina orain daukadan lanagatik are eta bereziagoa da.

Pena handia eman zizun saskibaloia jokatzeari uzteak?

Egia esan, bai. Urtetan jokatu nuen eta oso gustuko nuen. Hainbat taldetan ibili nintzen, eta ezagunena 2. mailako Gasteiz taldea izan zen. Utzi eta gero, lagunekin elkartzen nintzen tarteka, jokatzeko. Eta gerora, itzulera bat ere egin nuen, gainera: talde gazte batekin jokatzeko ibili nintzen,

eta nagusia nintzen askogatik (barre).

Eta Gara utzi zenuenetik Baskonia jarraitzen duzu?

Ez lehen beste, Gara-n lan egin nuen sasoiaren taldearen gainean ia guztia nekielako. Ez naiz partiduak ikustera joaten, baina telebistaz beti jarraitzen ditut.

Zer ematen dizu idazteak?

Idazteak, beste gauza askoren artean, ematen dit idatzi ostean konturatzen naizela buruan zer daukadan, zer pentsatzen dudana. Horrez gain, jakina, behar bat

daukat norbait zerbait komunikatzeko.

Ahultasuna bertutea ere bada?

Ahultasuna da guztiok daukagun zerbait. Txarrena da hori ezkutatzeko saiotea. Ahuldea naturala da, eta askotan jokatzeko dugu ahulak ez bagina moduan.

Zure burua gasteiztartzat daukazu edo Lekeitioko sustraiak oso presente dituzu?

Gasteizen jaio eta bizi naiz, baina familia guztia Lekeitiokoa da, eta hango sustraiak oso presente ditut. Nik beti esaten dut *Marmitako* naizela.

Emakundetik zelan ikusten da berdintasunaren alde egindako lana? Baikor zarete?

Aurrera egiteko ezinbestekoa da baikorra izatea. Azken 50-75 urteotan aurrerapen izugarriak egin dira, itzelak, eta batzutan badirudi berdintasunaren gaudela... Baina, ez gara itsutu behar, gauza asko daukelako oraindik egiteko.



IDAZLEA Hainbat liburu argitaratu izan ditu Karmele Jaio.

GOIENKARIA

ai, ene!



Diamantezko ipod-a

Guztira 430 diamante ditu eta urrearekin eginda dago iDiamond-a. 25 mila dolarreko kostua dauka eta ongintzako enkante batean saldu zuten. Ez dute eman jakitera ze preziozotan saldu duten.
<http://www.20minutos.es>

biharamuna

Iñigo Biain


Printze txiki gehiegi

Larunbateko *La Provence* egunkari frantsesak 66 urte baino gehiagoan sekretupean izan den historiaren zati bat aire-ratu zuen. Izan ere, 1944ko uztailaren 31n, Antoine de Saint-Exupéry idazle frantses unitbertsala bere hegazkinarekin batera desagertu zen Marseillako kostaren aurrean, bere gorpua inoiz aurkitu ez zelarik. Larunbateko *La Provence*-n, ordea, argibide berriak eman ziren desagerketa horren inguruan: 88 urteko Horst Rippert alemanak onartu egin du bera izan zela *Printze txikia* liburuarren egilearen hegazkina tiroz bota zuena. Orain damu omen



da egindakoaz, bere esanetan "Saint-Exupéryren liburuak guztiok irakurri baititugu gaztetan, eta benetan maite genituen". Berandu, ordea. Beste behin ere, botere zanpatzaileak (kasu honetan Hitlerren botereak), kultura askepentsatzailea armaz isildu zuen, azken mendearen behin eta berriz gertatu izan den bezala, eta tamalez, gertatzen jarraitzen duen bezala. Zergatik diozue botere politiko eta ekonomikoek horrelako beldurra kulturari? Zergatik isilarazi nahi duzue pentsamendu berritzaileen iturri etengabea den kultura gaztea?

eguraldia



MAXIMOA

+17

MINIMOA

+06

Giro goibelarekin hasiko dugu astea, zeru grisarekin eta baliteke tanta batzuk botatzea. Hain zera suabe ibiliko da.

www.euskalment.net

Euskal soinu eta irudiak zure eskura!

SOINUAK: Bidali, SOINUE hutsunea
ABESTIAK: Bidali, SOINUP hutsunea
LOGOAK: Bidali, SOINUL hutsunea
JOKOAK: Bidali, SOINUJ hutsunea

KODEA KODEA KODEA KODEA

5767 zenzakira

SMS bakoitzeko: **1,2 € + BEZa**

smsoinu
Poltsikoko telefonorako euskal soinu eta irudiak

SOINUAK ERREALAK (2 SMS)
Abestiaren izena | **KODEA**

LOGOAK (SMS 1) KODEA

1,2,3,4...Real!! | REAL
Alboka | **ALBOKA**
Athletic Iuep!! | **IUEP**
Buztan bertsoa | **BERTSO**
Hartu... Aitarek ta semea... | **AITAREN**
Hartu... Ansar | **ANSAR**
Hartu... Argentinarra | **ARGEN**
Hartu... Mexikarra | **MEXIKO**
Hartu... Miami! | **MIAMI**
Independentzia! | **INDEPENDEN**
Irrintzia | **IRRINTZI**
Jotake irabazi arte! | **JOTAKE**
Milazu! (pilota) | **MILAZU**
Suprinua | **SUPRINU**
Tobera | **TOBERA**
Txalaparta | **TXALA**
Txanbela | **TXANBERA**
Txoootx | **TXOOTX**

DEPORIZENA, OSAUNA, IZENA, ZENBAKIA
E. ALONSO | **17**
KRUTXAGA | **17**

BILBAO, IZENA, ZENBAKIA
ETXEBERRIA | **17**
ARANBURU | **11**

ANOETA1 MENDI2
ARCO | **SADAR1**
IPURUA | **EIBARPOOL**

BELAK ZOR13 IKURR13 POPAT1K1 AIZKORAK ADARIAK
ZOR11 | **ZOR14** | **KALABER1** | **POPAT1K2** | **EGUZK1LORE3** | **ELORAN**

TOPA TITULUA MUSKARIA SATANAS ARRANAK IDIAK
TOPA!! | **TOPA!!** | **TOPA!!** | **TOPA!!** | **TOPA!!** | **TOPA!!**

OHARRAK
1. **BATERAGARRITASUNA:** Begiratu zure poltsikoko telefonora bateragaria den eskaintzen ditugun produktuekin, helbide honetan: www.smsoinu.com/bateragari
Bertan jasoko duzu beharrezko duzun informazio guztia.
2. **BALDINTZAK:** Edukiak eskuratzeko, beharrezkoa da GPRS sistema aktibatuta izatea. GPRS sistema aktibatuzko, jar zaituzte zure hornitzailearekin harremanetan. Alta ematea doan da eta Kb jaitziera bakarrik ordaindu beharke duzu. Kasu guztietan dela eta GPRS sistemaren alata ematea doan dira.
* Euskaltelef. deitu 900 94 02 00 telefonora. ** Vodafone deitu 123-za. / * Movistar deitu 0309-za.
3. **ZALANTZAK:** Edozein zalantza duzula, jarri gurekin kontaktuan: smsoinu@smsoinu.com / edo deitu 902 01 21 48 telefonora.
4. **PERTSONALIZAZIOAK:** Zure neurria egin ditzakegu abesti eta logoak. Webgune honetan kaleratu eta erabiltzaileek eskura dezatela nahi baduzu, jarri gurekin harremanetan eta deitu 902 01 21 48 telefonora.

WEBGUNEAN www.smsoinu.com